



9. KULTUR KUDEAKETAREN TOPAKETAK

ETORKIZUN OSASUNTSUAREN ALDE

Vianako Casa Navarro Villoslada Kultur Gunean egindako topaketa,
2023ko maiatzaren 3an

ETORKIZUN OSASUNTSUAREN ALDE

Argitaratzailea: KUNA, Asociación Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte
info@gestionculturana.org

Testuen transkripzioa eta berrikuspena: Amore Verbum Traducciones

Diseinua eta maketazioa: Amore Verbum Traducciones

Edizioa: 2023ko azaroa

Argitalpen honetan azaldutako ideiak eta iritziak egileei dagozkienak dira, eta ez dituzte nahitaez editoreen iritziak islatzen.

© Kongresuaren edizioa eta argazkiak: KUNA, Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte

© Irudietatik: egileak. Irudiak eta bideoak dibulgaziorako erabili dira, eta egileenak dira



AURKIBIDEA

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Belén González Callado

Azken urteetan sufrimendu psikikoaren ikusgarritasuna eta konfinamenduan niaren kontzientzia areagotu izanak eta lanaren prekarietatearen doazen dinamika ekonomikoek eragin dute Lan Ministerioaren lanprekarietateak osasun mentalean duen eraginari buruzko txostena egitea. Hemen azaltzen dira emaitza nagusiak eta gizarte- eta lanfaktoreekin duten harremana.

5. orrialdea

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

Mahai Ingurua: Rosana Corbacho eta David Márquez

Rosana Corbacho, David Márquez eta ikusleen arteko elkarrizketan, kulturaren sektorearen osasun-egoera aztertzen da, bai ikuspegi sistematikotik, bai psikologoaren eta pazienteen esperientziatik. Nola mantentzen dira harremanak kultura-sisteman? Nola maneiatzen ditugu gure lan-harremanak eta nola epaitzen ditugu besteak eta geure buruak helburuak lortzen ez ditugunean? Nola hobetu sistema? Nola heldu egunerokotasunari osasun mentarekin?

27. orrialdea

Etorkizun osasuntsu eta berdintza-learen alde

Neus Albertos

Sistema gaixo batean bizi gara, patriarkatua, gaixotzen dena eta jendea kaltetzen duena, eta genero batek bestearekiko duen nagusitasunean eta nagusitasunean oinarritzen dena. Menderatzeak pertsona otzanak hiltzen ditu, baina gaixotu egiten da eta menderatzaileak kaltetzen ditu. Egia esan, berdintasunak herritar guztien ongizatea bilatzen du, gizon eta emakumeena, eta guztion artean bizitza eta zaintza sostengatzea.

49. orrialdea

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Belén González Callado

Laneko prekarietateak osasun mentalean duen eraginari buruzko adituen batzordeko psikiatra (Espainiako Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa).

Psikiatra Leganeseko (Madril) Osasun Mentaleko Zentroko Programa Komunitario Intentsiboan eta Etxebizitza Gainbegiratuetan. José Germain Institutu Psikiatrikoa. Jatorriz Yes-tekoa (Albacete). Medikuntzan lizentziaduna Gaztela-Mantxako Unibertsitatean. Madrilgo Osasun Mentaleko Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea. Ikasketa Feministetako Masterra (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea-InstiFem). Tortura Prebenitzeko Mekanismo Nazionaleko kanpo-teknika (Herriaren Defendatzailea).

Haren interesak eta argitalpenak osasun mentaleko teoria eta praktika komunitario bat sortzera bideratuta daude, gizarte-mugatzaileak, giza eskubideak eta generoa kontuan hartuta. "Auzoak eraldatzea sufrimendu psikikoa saihesteko" bezalako argitalpenetan parte hartu du.

Aurrerapena

«Ez dut uste hori baino termino zitalagorik dagoenik prekarietatea eta sufrimendu psikikoa dugunean gertatzen zaiguna aipatzeko. Zertara egokitzea? Lan ingurune gaixo batera? Ni lan ingurune gaixo horretara egokitu ahal izatea nire osasun ahalmenaz mintzo da, ez gaixotasun batez».



Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Eskerrik asko gonbidatzeagatik. Poz handia hartu nuen niregana jo zenuenean eta ilusio berezia eragin dit Viana bezalako herri batean egoteak, hau da, Iruñeko periferian egoteak. Ni ez bainaiz Albacetekoa, baizik eta Segura mendilerroko herri txiki-txiki batekoa; han jaio nintzen, Albacetetik ia bi ordura, horixe izaki hiri ertainik hurbilena. Hori dela eta, nire identitateak eta aipatu dudan herriak zerikusia dute nire bizitzaren zati handi batean Viana bezalako leku batean bizi izanarekin. Eta pentsamenduak eraikitzen ditudan lekuak zerikusia du hazi naizen lekuarekin, bizi izan naizen lekuarekin, eskura izan dudanarekin eta izan ez dudanarekin, eta zerikusia ere, nire herria bezalako leku batera edo Viana izan daitekeen batera iristen zenarekin eta iristen ez zenarekin. Horrek bere garrantzia du, nik uste. Madrilen bizi banaiz ere, zentzua ere badu neure burua nire herritik aurkezteak. Gainera, herrikoa izateak, eta emakumea eta gaztea izateak, eta zaintzarekin zerikusia duen lanbide batean aritzeak, horrexek guztiak bizitza osoa zeharkatu nau, zuen identitateek eta identitateekin zerikusia duten ardatz guztiek zue-tako bakoitza zeharkatzen zaituzten bezala.

Kulturarekin zerikusia duen lanbide batean ari zarete, lan erreproduktiboa da, eta hori lan prekarietatearen testuinguruan ikusiko dugu; bada, horrek garrantzi handia du. Eta emakume gaztea izateak (emakume gazteak zarenok) ere garrantzi handia du. Eta zentzua du horretaz eta leku honetan hitz egiteak, eta kulturarekin zerikusia duten alderdietan, zeren, esparru horietan lan prekarietate hori era handiagoan eta bereziagoan ari baita

sortzen. Ikusiko dugu nola eragiten dion horrek aipatu dizkizuedan identitateen bidez garatzen den zapalkuntza-ardatz bakoitzari.

Mintzagai izanen dudan txostena mundu guztiarentzat dago eskuragarri. Aurkeztu dugun laburpen exekutiboa da. Aurrerago, maiatz bukaeran, formatu osoa aterako da, gustatuko zitzaigukeena baino zati txikiago batekin, kulturgintzari eskainia.



Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Lehenik eta behin, ni kide naizen taldeak txosten bat egin berri du Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioarentzat, lan prekarietateak osasun mentalari nola eragiten dion azaltzeko eta hori arintzen saiatzeko zer neurri har ditzakegun ikusteko, bai osasun mentalaren gainean diren ondorioei dagokienez, bai lan prekarietateari berari dagokionez. Txostenaren jatorriak zerikusia du metatzen ari diren inguruabar batzuekin. Batek lan prekarietatean pentsatzen du eta huraxe hartzen du kontuan, baina hainbat gauza lotu behar dira, baldin eta lan prekarietatean pentsatzen hasi nahi badugu txosten horretan pentsatzen den bezain modu serioan. Laburpen exekutiboa ehun orrialde ingurukoa da, baina txostena askoz ere zabalagoa izanen da.

Denborazko mugarri bat jartze aldera, txostena egiteko batzordearen jatorria, hasieran, lotua dago Más País-eko Iñigo Errejón lanetako ondoez mintzatu izanarekin. Izan ere, horretaz solasean ari zela, baten batek, ez daukat gogoan Alderdi Popularrekoa edo Voxekoa ote zen, esan zion: “zoaz medikuarenera”. Eta hori iraintzat jotzen da. Zoaz medikuarenera, hemen ez baituzu egon behar zure ondoezak kontatzen, hau ez da leku aproposa horretarako; hau da, lanpostua, guk ekoiztu egiten dugun lekua eta harremanetan sartzen garen lekua, ez dira toki aproposak gaizki gaudela esateko, baizik eta medikuarenean, eta gainera, hori eskusioarekin identifikatzen da. Zoaz, beraz, zu ikusiko ez zaitugun leku batera. Eta baten batek aguanta zaitzala edota baten batek senda diezazula duzun hori; medikuak, adibidez. Kasu partikular horretatik atera-

ta, gogoan dut, garai hartan ere, eta orduz geroztik gaur egun arte, gero eta maizago entzuten niela nire adineko lankideei edo nire belaunaldiko emakumeei esaldi hau: “Bizitzak itoa nago”. Ez dakit ezaguna egiten ote zaizuen esaldi hori... “Ez naiz iristen”, “ezin dut gehiago”. Baina, gainera, erabat modu orokorrean. Ez da “ezin dut honekin”, “ezin dut seme-alabekin”, “ezin dut etxeko lanekin”. Ez. “Bizitzak itoa nago” esamoldea denborazko kontzeptu baten zentzuan esana da, zeinean denbora erabat baita urria guztirako.

Ez gara ezertara iristen; berandu iristen gara guztira. Presa handiz gabil-tza, zeregin asko ditugu, eta zereginok antsietate-egoera eragiten digute etengabe, eta are, deus ere egiten ez dugunean ere dirauen egoera da. Orduan, sentrazio horixe bera dugu: “bizitzak itorik gaudea”. Arratsalde batean besaulkian zaude eserita eta ez duzu esaten, “zeinen ongi, hementxe nago lasai-lasai”; hortxe baitirau toki guztietara ziztu bizi-an joatearen sentrazio etengabe horrek. Aurrerago kontzeptu horretan sakonduko dut, baina berrikitan mota jakin bateko sufrimendu psikikoaren ikusgaitasuna handitu da. Herritar gehienok sentitzen hasi garen sufrimendu mota hori da; botere diskurtsiboa duten herritarren gehien-goia da. Ez da kasualitatea gure artean esamolde hori entzutea edota Parlamentuan “zoaz medikuarenera” esatea eta horretaz hitz egiten hastea. Jende asko, baina batez ere emakumeak, lehenago ere ez bizitzak itoa zebiltzan, baina ez zeuden horixe adierazteko espazioetan, ezta horixe entzuteko eta kezka bat eragiteko lekuetan ere. Pribilegioko

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

esparruetan agertu denean soilik, eta ez da gauza bera ni Madrilen bizi naizen mediku gisa edo psikiatra gisa kexatzea, hau da, solasaldiak ematen ditut eta kide naiz batzorde batean, edo Huelvan marrubi bilketan ari den emakumezko langile prekario, migrante eta jornalari batek horixe esatea. Emakume hura lehenagotik ere bazegoen horrela. Era berean, ez da gauza bera “bizitzak itoa nago” esatea bizitza osoan lan-contraturik gabe eskailerak garbitzen aritu den emakumeak, lau seme-alabak zaindu beharrez, ikasketarik egin ahal izan gabe, aita eta amaginarreba zaindu beharrez, bere buruarentzat denborarik batere izan gabe. Emakume horiek ere lehenagotik bizitzak itoak zeuden. Baina orain, hori garrantzia hartzen ari den esparruetan entzuten ari gara. Horrek bidegabekeria-puntu bat du, zeren, jakina, hori lehenago entzun behar izan baikenuen eta hartatik ere lehenago ikasi, baina oraintxe egi-ten ari gara. Hobe berandu inoiz ez baino.

Sufrimendu psikikoaren ikusgaitasuna, gainera, sufrimendu psikiko jakin batena izan da, nahasmendu mental komuna deitutakoa edo sufrimendu psikiko ez muturrekoa. Gaur egun, adibidez, eskizofrenia edo nahasmendu bipolarra oraindik ere dira ikusgaitasun handirik gabeko diagnostikoak, eta ez daude hobeki toleratuak gizartean, ezta hobeki integratuak ere. Arestian esan dizuedan gauza berberengatik. Zeren, emakumezko jornalariaren kasuan, hori ez baita entzuten. Hemen gauden erdiek muturreko sufrimendu psikiko bat bagenu eta eskizofreniaren diagnostikoa bagenu, orduan hori arazo izaten hasiko litzateke gi-

zartearentzat, baina oraingoz ez da horrela. Har dezagun ardatz ikusgai dagoen hori, salaketa txiki hau egin arren oraindik ikusgai ez dagoenaren aurka, hots, antsietate, depresio eta tristura sentazio horrekin zerikusia duenaren kontra.

Lagungarria izan da konfinamenduan guk geuk kontzientzia handiagoa hartu izana eta, halaber, kontzientzia hartu izana geure enplegu-baldintzen gainean. Ziurrenera, ez hemen gaudenon egoera, baina jende asko, bat-batean, formatu berriak zirela eta, gobernuak emaniko laguntzak zirela eta, ikusten hasi zen askoz ere ordu gutxiagorengatik zeudela kontratatuak, eta ordu gutxiago kotizatzen ari zirela egiazki lan egindakoak baino eta ordaintzen zitzaizkienak baino. Horrenbestez, estatua eta komunitatearen babesa behar denean, jende askok ikusi du sistema bidegabean dagoela eta lan abusuak egiten dizkiotela luza-roan, eta bere buruari ere ez ziola halako galderarik egin. Hori gauza zabaldu samarra izan da eta nolabaiteko indarrez iritsi zaigu kontsultara. Gainera, bizitzako balioen birplanteamendua gertatu da. Pandemiak eta itxialdiak hamaika gogoeta eragin ditu, baina haien artean, bi azpimarratu nahi nituzke. Batetik, zeinen garrantzitsua den bai bizitza, bai hurbil ditugunak eta, bat-batean, ezin ikusi ditugunak; zeinen garrantzitsua den gu babestuko gaituen norbait izatea gaizki gaudenean eta horixe dirauen norbait izatea oso gaizki gaudenean eta beste batek gu zaintzea, beharrea gaudenean. Halako batean, lanak, soldatak, lanaren bidezko errealizazioak ez dute hainbesteko garrantzirik, eta garrantzia

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

arrantzia du, aldiz, bizitzarekin eta harremanekin zerikusia duen horrek. Bestetik, azterlanak egiten hasi gara konfinamendua sufritu duten pertsonen osasun mentalean izandako inpaktuaz; hein handiagoan edo txikiagoan denok pairatu dugu. Horrela, ikusten dugu emakumeak gainerrako familia-kideekin konfinatu diren familietan, emakume horiek egin dutela oroz gain etxeko lana eta zaintza lana, nahiz eta zeregin laboralak eta produktiboak ere egin izan. Lan hori batez ere emakumeengan eta amengan erori da. Azterlanetan ikusi dugu horrek eragin handiagoa izan duela haien osasun mentalean konfinaturik ere bazeuden gizonean baino. Etxean egiten diren lan erreproduktiboek bidegabekeria dakarte berekin, hau da, zu etxeaz arduratzen zara, pentsatu behar duzu noiz atera erosketak egitera, nola antolatzen ditugun haurren lanak edo haien aisia, garbigailuak; horrek halako higadura emozional bat dakar, eta hori pandemian inguruabar horietan neurtzen hasi da.

Zer lan izan dira funtsezkoak pandemian? Lan erreproduktiboak eta eskulanak. Horrek garrantzi handia du, zeren, lan horiek (eta kultura lan erreproduktibo horien artean dago) beti izan dira gutxien baloratuak, okerren ordainduak eta baldintzarik txarrekoak. Hau da, supermerkaturako kutxazaina, emakumezko kamioilaria, Murtzian janaria biltzen duena, erizainak, egoitzetako erizain-laguntzaileak... Horrelako une batean, denok ateratzen ginen medikuei txalo egitera, baina ez zen bakarrik haien, baizik eta une horretan bizitzari eusten laguntzen ari ziren guztiei. Eta zaintza lanei. Niri zoragarria iruditu zitzaidan ikusi genuenean egiaz-

ki nortzuek zuten garrantzia, eta hori mantenduko zelako fantasia nuen. Azkenean, hori ikusi ahal izanen zela, hau da, daramadan denbora guztiarekin, betiko feminista bainaiz, beti emakumeen lanez hizketan, lan erreproduktiboaz, lan hori ikusarazteaz, hori aitortu beharraz, ez baita go aitortua, eta horrek kalte psikikoa eragiten du. Eta hara, hori ustekabea nirea; salbuespen-egoera bukatzean, berriz ere lan horien garrantzia lurperatu genuen eta, gainera, lehenago baino prekarizatuagoak daude.

Dinamika ekonomikoek lanpostuen prekarizaziorantz jotzen dute. Inertzia ekonomikoa da. Eta, azkenik, txosten horren jatorriak ulertu ere ulertu behar du, zure osasun mentalerako, gehiago axola dutela zure lan-baldintzek zure serotonina-mailek baino. Horregatik ez da egiten ari Osasun Ministeriotik, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeriotik baizik, ulertzen baita hortik ekarri behar dela bai irtenbidea, bai ikerketa.

Hona hemen txostenaren oinarriak eta helburuak.

OINARRAK:

1. Zuzeneko lotura dago lan prekaritatearen eta sufrimen psikikoren artea

Gauza jakina da zer den lan prekaritatea, hau da, lanaren, lanpostuaren eta enpleguaren inguruabar horiek guztiak; adibidez, behin-behinekotasuna, espektatibarik eza, planteatutako helburuak ez bete-

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

tzea, lanak eskakizunetara ez egokitzea, erabakimenik ez izatea zure lan esparruaren barruan, lan desatseginak egin behar izatea, ordaintzen ez diren orduak, nahi ez ditugun orduak..., hau da, parametro horien guzti-en ondorioz, lana eskakizun handiagoko lekua da eta ez da kontrolik langilearentzat, eta horrek etekina sortzen du kontrapartean.

2. Lanak ez luke inor gaixotu beharko

Arin-arin esaten dugu baina ez dugu oso barneratua.

3. Lan prekarietatea gizarte arazo oso nabarmena da

Hari buruz ikertzen hasteko moduko irismena du.

4. Lan- eta enplegu-baldintzen ondorioz, sufrimendu psikikoa handitzen da. Hau da, osasun publiko mentaleko arazo bat dago.

Izan ere, ez soilik lan egiten duen jendearengan, baizik eta langabeen artean ere gertatzen dira lan prekarietatearen inguruabarrak. Hau da, ikusten ari gara osasun mentalaren egoerak txarrera egin duela jende olde ikaragarriarengan, lanari dagokionez. Hori osasun publikoko arazoa da.

5. Lan prekarietatea era desberdinean dago banatua biztanleria taldeen arabera, eta interseksionalitate-patroi baten arabera eragiten du gehiago

Horrek lotura dauka nire hitzaldiaren hasieran identitateaz esan dudanarekin: hau da, nor garen gutako bakoitza, nondik gatozen.

HELBURUAK

- 1. Lan prekarietatea eta osasun mentaleko arazoak neurtu, aztertu eta ebaluatzea**
- 2. Lan prekarietatearen aurka borrokatzea, bai eta hark osasun mentalean dituen ondorioen aurka ere**
- 3. Langileen babes, osasun eta zaintza baldintzak hobetzea**

Hori aurrerapen bat besterik ez da. Ez dut aipatu zer neurri proposatzen diren txostenean, baina zorionez, neurri zehatzak dira, lan eskubidearekin eta araudi eta kontu politikoekin zerikusia dutenak, eta agian, beste maila batzuetan ezarri behar dira, baina nolana ere, interesgarrien iruditzen zaidan baten bat aurreratzen joanen naiz.

Interseksionalitatea berriz hizpidera ekarrita, eta suposatzen dugunez lan prekarietateak eragin handiagoa duela norberaren arabera, iceberg baten eskema hau egin dut.

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak




Ikusten dugu azaleratzen ari dela lan prekarietatea osasun publikoko arazoa dela, ahotsa duten kolektibo jakin batzuei eragiten dielako. Ezkerrean duzue zer dagoen horren guztiaren azpian; hau da, lan prekarietate metagarria izateko arriskurik handiena, hots, elkar gainka jarrita dauden hainbat elementu ditu, hala nola desahalduntzea, nahi baino ordu gehiago, lanaldi murrizketak galarazten dizkizute, soldata apalak.... Arriskurik handiena duzu, baldin eta emakumea, migrantea, gaztea eta desgaitua bazara, edota eskulanak edo lan erreproduktiboak egiten badituzu. Lan erreproduktiboak ez dira soilik zaintza lanei eskaintzen zaizkienak, baizik eta bizitza ugaltzeari eta harreman afektiboari, sozialei eta

kulturari eskaintzen zaizkienak, eta gizaki gisa, pertsona gisa nahiz komunitate gisa identitatea ematen digun gauza orori eskainitakoak. Hain zuzen ere, arestian aurreratu dizuedan bezala, lan kulturalak lan erreproduktiboak dira. Sustraiak ematen digutenak dira; haien eraginez, partekatu egiten dugu, sortzaileak gara, kide gara, ezagutzen dugu...

Eskuinaldean, goian, ugaritzen ari den eremua dugu, hau da, Osasun Mentaleran iristen diren emakume langile prekarioak izanen lirateke Kotsultetan ikusten dugun arazo hori, psikiatriari edo psikologiari dagokion arazoa duten pertsonen arazo hori; zatirik txikiena da osasun mentaleko laguntza-sarearen barnean, lan prekarietatetik eratorritako sufrimendu psikikoa duten pertsona guztien artean. Haietako batzuk lehen laguntzan artatzen dituzte, ez beti sufrimendu psikikoagatik; zeren, lan prekarietateak ez baitu soilik sufrimendu psikikoa eragiten, baizik eta arazo asko: somatizazioa, arazo fisikoak... Eta horiek lehen laguntzan artatzen dira. Kontua da haien azpitik ditugula halako sufrimen mailara iristen ez diren gure komunitateko pertsona langile prekarioak, ez dute sufrimendu hori identifikatzen gaixotasun gisa edo ez dute pentsatzen nahikoa arrazoi dela medikuarenera joateko, eta bizitza osoan pairatzen dute, eta bizitza hondatzen eta egoera higitzen joaten zaie. Ez doaz medikuarenera, honakoa ez esateagatik: "Doktorea, bizitzak itoa nabil", eta medikuaren erantzuna ez entzuteagatik: "Eta zer egin dezaket nik"? Baina egia da bizitzak itoa zabiltzala eta gaizki zabiltzala.

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak


Distribución de las personas asalariadas por deciles salariales, según tipo de jornada y género, 2019.



Txostenean jasotako estatistika sorta batzuez mintzatuko naiz.

Hona hemen eskema, soldata-dezilen arabera, 1etik 10era, txikienetik handienara. Diru-sarrerarik handieneko dezil handietan, lanaldi osoan bakarrik dago lana eta, askoz ere hein handiagoan, gizonen lanean emakumeen baino. Soldata-dezil apalagoetara hurbildu ahala, emakume gehiago dago lanaldi osoan lanean eta gizonek irabazten dutena baino gutxiago irabazten dute. Soldata handiagoetara jo ahala, egoera hau da: lanaldi osoan ari diren gizonek dihardute espazio horietan. Dezil txikienetara joaten garenean, batez ere emakumeak daude lanaldi partzialean, gizon gutxi batzuk, eta emakume multzo bat lanaldi partzialean eta lanaldi osoan. Jakina, lanaldi partzialeko lana duzunean, zure diru-sarrerak txikiagoak dira. Eta lanaldi partzialak ia beti emakumeek har-


tzen dituzte eta ia beti zaintza kontuengatik. Hobe beste arrazoi batzuenengatik hartuko bagenu; adibidez, urtean zehar askotan oporretara joateko. Baina ez da horrela, zeren, oro har, diru-sarrera txikiagoak baititugu, hemen ikusten den bezala.



Hemen azterlan xehetuegoga dago baina irudikatzen du interseksionalitateaz eta identitateez esan dudana. Gorria lan prekarietate handia da, eta arrosa, berriz, lan prekarietate moderatua. Lan prekarietatea askoz ere handiagoa da gazteen artean helduen artean baino; bi taldeetan, lan intentsitate handiagoa mantentzen da migranteen artean; batez ere, eskulanean; eta ia haietan guztietan, emakumeek diharduten lanbideetan, hala eskulanetako lanbideetan, nola bestelakoetan; espainiarrek edo migranteak izan, helduak edo gazteak izan, beti dira emakumeak kaltetuak, beti dute maila handiago bat lan prekarietatean eta, batez

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

batez ere, lan prekarietate handian.



Grafiko hau atsegin dut bereziki eta aurreratu dizuedana adierazten du: prekarioen banaketa ikasketa-mailen arabera, 2007tik 2022ra bitarteko lehen hiruhileko bakoitzean. Gero eta gehiago, ikasketa maila apaleneko pertsonak lan prekarietatearen maila apalago bat adierazten dute. Eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak lan prekarietatearen % 33,7 ziren 2007an, eta orain hamabi puntu gehiago dira. Zer esan nahi du horrek? Lan prekarietatea gero eta gehiago ari dela igotzen, itzal bat bezala, hots, egun % 45,2 da. Horrek esan nahi du lan prekarietatea tsunamia bailitzan doala aurrera, gero eta gehiago igota. Beheko pertsonak jotzen dituenean, ez dugu hori arazo handizat jotzen, baina arazo handia dela hasten gara aitortzen, erabakimena dugunok jotzen gaituenean, horixe salatzeke nola halako leku soziala dugunok jotzen gaituene-

an. Berriz ere esanen dut: zoragarria da lan prekarietateaz hitz egitea, baina ez da ahaztu behar kolektibo batzuk ez ditugula aipatu ere egin eta horiek ere kontuan hartu behar dira. Lan erreproduktiboetan ari diren emakumeak edota eskulanetan ari diren pertsonak edota migranteak aspaldian ari ziren lan baldintza horiek pairatzen.

Ebidentzia dago osasun mental txarraren eta lan prekarietatearen artean. Mundu mailan egindako azterlan guztien artean (baina batez ere Europan), eta Espainiako esparruan begirada pausatzen saiaturik (ezberdintasun jakin batzuk dituelako Europaren aldean), oro har ondorioa da frogatua dagoela osasun mental txarraren eta lan prekarietatearen arteko lotura. Nahiz eta osasun mentala ez den oraingoz maiz jasotzen lanari buruzko azterlan epidemiologikoetan. Dosi-erantzun erlazio bat aurkitzen dugu: prekarietatea zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txarragoa da osasun mentala. Datua da osasun mentalaren gaineko inpaktua 2,5 aldiz handiagoa dela langile prekarioenengan. Asko da. Ez dute gauza askok eragiten osasun mentalaren hain txartze nabarmena. Egoerarik txarrena emakume migranteen, emakume-langileen eta nesken artean ikusten da, haien lan prekarietatea enpleguen % 90era iristen baita. Eta langile-klaseko eskulan-langile emakumezkoen % 7,9k airtortu du depresioaren kontrako botikak kontsumitzen zituela, unibertsitateko neska ikasleen aldean.

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Uste dut interseksionalitatearen gaia garrantzitsua dela. Ez da soilik zapalkuntzen batura, baizik eta interseksionalitate horrek adierazi nahi du identitate horiek batera identitate berri bat sortzen dutela, eta identitate berri hori gaur egun diskriminatuagoa dago haien guztien batura baino.

Horra txostenak ondorio gisa atera duen daturik txundigarriena eta prentsan agertu dena:

El estudio muestra que en la población activa hubo un total de más de 511.000 casos de depresión, con un riesgo atribuible poblacional del 33,2%, de modo que se puede decir que **si la población precarizada (incluyendo la desempleada) hubiera tenido un empleo estable, se hubieran podido evitar casi 170.000 casos de depresión.**

Hori sinpletze bat da, azken buruan zenbaki hutsak baitira, bai eta eragiketa estatistikoak eta inferentziak ere. Baina berriro esanen dut; ikaragarria da arriskuaren % 33 hori egoera horrek eraginda izatea, batez ere kontuan harturik lan prekaritateak sortzen duen kaltea eta zeinen zabaldua dagoen. Zer esan nahi du arrisku egozgarriak? Horrek esan nahi du lan prekaritatea sufritu eta depresioa duen biztanleriatik (ia populazio langilearen % 50) lan prekaritatea bere osoan ezabatuko bagneu, depresio kasuen % 33 eragotz genitzakeela. % 60k beste aspektu batzuekin luke zerikusia, eta lan

prekaritaterik gabe mantendu egingen lirateke, baina kopurua izugarri murritzuko litzateke. Inoiz ez bezalako inpaktua izanen luke osasunean.

Lan-prekaritateak osasun mentalean eta arriskuaren tamainan dituen ondorioak

Horratx Osasun Mentaleko Adituen Batzordeak egindako eskema. Lankide haiei eskerrak eman nahi dizkiet, bikainak baitira; haietariko edonor hemen egon izan balitz, ikusgarria izanen zatekeen. Hona haiek egindako lanpiezetako bat, oso esanguratsua da eta inpaktu hori ikusarazten du. Azter ditzagun lan prekaritatearen dimentsioak.

Tabla 5. Resumen de la evidencia científica de los efectos de las dimensiones de precariedad laboral sobre la salud mental y la magnitud del riesgo.

Dimensiones de precariedad laboral	Efecto sobre la salud mental	Magnitud promedio del riesgo
Inseguridad del empleo	Depresión, ansiedad, mala salud mental general, malestar, bienestar psicológico pobre y uso de medicamentos psicotrópicos recetados	Entre un 30 y 80% más de riesgo en comparación con la población trabajadora no precaria
Salarios (bajos salarios y/o volatilidad de los salarios)	Mala salud mental, estrés, depresión, ansiedad, bienestar psicológico pobre	Entre un 15% y un 200% más de riesgo en comparación con la población trabajadora no precaria
Vulnerabilidad	Mala salud mental general	Entre un 20% y un 155% más de riesgo en comparación con la población trabajadora no precaria

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Adibidez, **enpleguan dagoen segurtasunik** eza. Zer ondorio ikusi dira osasun mentalean? Depresioa, antsietatea, osasun mental txarra, ondo-eza, ongizate psikiko apala eta botika psikotropiko gehiegi errezetatzea. Zenbaitetan, errepikakorra da baina azterlan askoren emaitzaren batzura da. Arriskuaren batez besteko magnitudea hauxe da: enpleguko segurtasun ezaren ondorioz, % 30etik % 80ra bitarteko probabilitate handiagoa duzu efektu horiek guztiak pairatzeko.

Soldatak (soldata apalak eta/edo soldaten moldagarritasuna). Koadro klinikoan multzo bat sortzen dute. Arriskua % 15etik % 200era bitarte da handiagoa, langile ez prekarioen aldean.

Zaurgarritasunak osasun mental txarra eragiten du eta arriskua % 20tik % 155era bitarte da handiagoa, langile ez prekarioen aldean.

Behin-behinekotasunak antzeko efektuak sortzen ditu eta % 10etik % 90era bitarteko arrisku handiagoa.

Lan-orduek (lan-ordu luzeak eta/edo ezin aurrez jakin zer-nolako ordutegiak izanen diren) ongizate psikologikoa hondatzen dute, depresioa eta antsietatea eragin ditzakete, eta % 10 arrisku handiagoa dute, langile ez prekarioen aldean. Ehunekoak oso zabalak dira eta, zenbaitetan, harrigarria izan daiteke guretzat handiagoak ez izatea, baina kontua da une honetan ez dagoela nahikoa ebidentzia. Pentsatzen ari gara zer mekanismoren eraginez eragiten duten inguruabar horiek osasun mentalaren hondamena. Jakina, pertsona batek 4 orduz lan egiteagatik, eta ez, 6, ba horrek ez du

zuzeneko loturarik osasun mentalarekin; beraz, are gehiago aztertu behar dugu eta horretan ari gara.

Lan eskubiderik ez izateak edota eskubide horiek ezin erabiltzeak osasun mental txarra eragiten du eta % 4tik % 50era bitarteko arrisku handiagoa duzu.

Gainera, **dimentsio anitzeko egoera** bat denean, horrek nahasmendua eragin dezake, substantziak kontsumitzearen ondorioz, osasun mental txar orokorraren ondorioz... eta % 10etik % 100era bitarteko arrisku handiagoa, langile ez prekarioen aldean. Ehuneko nahiko esanguratsuek dira eta, gainera, gehienen batura hartu behar da kontuan, kasuak ez baitatoz isolaturik. Batek lan baldintza konplikatuak dituen hainbat ondorio batera izan ohi ditu. Eta, gainera, lan egoera korapilatsuak, hala nola soldata apalak, ezin aurreikusi diren ordutegiak, lan-ordu asko..., horrek guztiak bizitza-hondamena eragiten du eta osasun mental txarra ere bai. Lagunekin gozatzeko astirik ez duzunean, edota gaixorik dagoen ama bisitatzeko aukerarik ez duzunean, ez dakizulako bihar lanera joan behar duzun edo ez, horrek osasun mental txarra eragiten du. Eta hori ez dago hemen jasoa edo zehaztua.

Hasi gara ikusten, edo espekulatzen dugu zer mekanismoren bidez eragiten den sufrimendu psikikoa. 2021eko beste txosten batek esan digu zer mekanismok eragiten duten lan baldintza txarren eta osasun mental txarra izatearen arteko lotura. Aurkitu dugu laneko segurtasunik eza,

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

goi tentsioa, lanarekiko eragin apala eta ahalegina/saria desoreka depresioarekin lotu direla; segurtasunik eza eta lanaldi luzeak, antsietatearekin; babes sozialik eza, eskakizun handiak, burnout-arekin; arrisku psikosozialak, loaren nahasmenduekin; eta laneko segurtasunik eza, goi tentsioa, autonomia apala, babes sozial txikia, eta ahaleginen eta sarien arteko orekarik eza, ideia suizidarekin.

¿Gogoan al daukazue France Telecom-eko suizidioen kasua? Duela hamar edo hamabost bat urte gertatutako hura? France Telecom enpresako langile askok bere buruaz beste egin zuten. Prentsa txarraren ondorioz, enpresak izena aldatu eta, aurrerantzean, Orange izan zen. Langileek lan jazarpenak pairatu zituzten, enpresatik alde egin zezaten, etab. Horren ondorioz, pertsona kopuru nabarmenak bere buruaz beste egin zuen. Enpresaren kontrako salaketa jarri zuten, suizidioen erantzule izatea leporatuta, eta auzia irabazi zuten. Kasu horretan ezohikoa ez da enpresa bateko pertsona multzo batek bere buruaz beste egitea, abusuen ondorioz, hori zoritxarrez ez baita hain ezohikoa. Izan ere, gure txostenean jaso da ideazio autolitikoa eta arrisku autolitiko handiko pertsona baten kasu klinikoak, lan egoera baten ondorioz. Ezohikoa da enpresa eta haren politikak jotzea pertsona horien heriotzaren erantzuletzat. Gaur egun, gauza bera gertatzen ari da Iphone-eko elementuak fabrikatzeko berariaz eraikitako hiri txinatar batean. Inguruabar horiek eraginik, hainbat suizidio gertatu dira; ikerketan ari dira, eta jakina, Foxconn enpresak esaten du ez dela horren erantzulea.

Gaur egun, lan abusuak ez du indarrean den sistemaz bestelako baldintzarik behar gertatzeko. Lan abusia idatzi dut, eta ez lan prekaritatea, lan prekaritatea lan abusuaren forma bat delako. Agian, ez da aurrez zuzenean pentsatutako edo planifikatutako forma, hau da, ez du lan abusia izateko berariazko borondaterik, baina emaitza horixe da, hau da, lan abusia. Txostenean jasotako ondorioak multzokatu nahi izan ditut, egungo posibilitate-baldintzen arabera. Badira testuinguruari dagozkion baldintzak, bizi garen ingurunearekin zerikusia dutenak, eta arau arloko baldintzak, eta azken baldintza horiek ahalbidetzen dute lan testuinguruetan lan prekaritatezko egoerak gertatzea, mantentzea eta oso zaila izatea haien aurka borrokatzea.

Testuinguruari dagozkion baldintzak

- Langabezia kopuru handiak. Horrek erreserbako ejertzito bat sortzen du, zeinean, enpresek, jakina, gehiago irabazten baitute, haien helburu nagusia irabaziak eta langileei gutxiago ordaintzea direlako. Zenbat eta langile gehiago izan, hainbat eta soldata apalagoak ordaindu ditzake eta etekin handiagoak izan. Zenbat eta langabetu gehiago izan, hainbat eta enplegu-eskatzaille gehiago daude, eta enpresek lan baldintzak okertzeko aukera dute .
- Prekarizazio orokorra; hau da, ez dago lan baldintzekiko lehiarik. Ni Deloitte bekadun ari banaiz, eta neure artean esaten badut, oso gaizki nago, erlojuak baino ordu gehiago lan egiten baitut, ia-ia hementxe bertan lo eginda; beraz, PwC-ra joanen naiz. Baina hark ere lan baldintza berberak ditu. Santanderren probatzen dut, eta berdin. Institu-

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

zio publikoan saiatu, baina aunitzetan instituzio publikoan ere baldintza prekario horiek aurkitzen ditugu. Ez dago lehiarik lan baldintzetan. Horrenbestez, Deloitte esan dut, baina kontu horrek ere badu zerikusia nirekin, Osasuneko langilea bainaiz, eta esparru hori ere erabat baitago prekarizatua. Medikuntzako egoiliarra banaiz, ehun ordu lan egiten ditut astean guardietan eta lanaldi normal batekin, eta ea horrek hobera egiten ote duenlangile atxikia naizenean, eta bestela, ikusiko dugu ea lanpostu finkorik hartzen dudan, lanaldia murrizten dudan eta zerbait bizi ote naitekeen.

- Babesgabezia soziala. Lan egin ez dezakeen edo lan egiten ez duen jendeak ez du behar adina diru-sarrera ziurtaturik bizi ahal izateko, ezta lan baldintzak jartzeko aukera izateko ere. Hau da, ez du aukerarik enpresa batera joateko eta esateko: zer eskaintzen didazu? Eta onartze-ko edo errefusatzeko. Ezin dugu halakorik egin, ez baitago langileok lan baldintzak jartzea sostengatuko duen zaintza sistemarik.
- Babesgabetasun ikasiaren egoera. Hedabideez eta diskurtso sozialaz harata doa... Sistema ustel batekin du zerikusia, zeinean beti langileok galduko baitugu, eta mailan zenbat eta beheiago zauden, hainbat eta seguruagoa baita ez duzula babesik izanen abusuen kontra. Eta ikasten duzu zertarako balio duen kexatzeak: denbora osoan kexatzen gara eta inork ez digu jaramonik egiten. Gertatzen ahal zaizun onena da zure lan egoerak okerrera egitea. Hilabeteak, urteak eta denbora luzea kexan eta kexan ibili, eta deus gertatu ez dela ikusi eta gero, ikasten dugu behin batean kexari lotuta gelditzen garela eta hor gelditzen garela edo-

ta kexatzeari uzten diogula, zeren, zertarako?, beste batzuek lortzen baitute joko-arauak aldatzea; ez, guk, ordea.

- Sistema judizial saturatua. Batez ere, administrazio-bidetik. Urteak itxaron beharra. Adibidez, lan bajaran banabil eta kanporatzen banautte, kaleratze bidegabea izanen da, baina nik kaleratze bidegabe gisa sinatu eta, agian, epaiketa bizpahiru urteren buruan aterako da; eta beharbada, enpresa hori ere ez da existitzen, eta dena aunitzez ere gehiago korapilatuko da eta beste denboraldi batez luzatuko da. Hori kontsultan aurkitu ohi dugu: hau da, sistemari aurre egitea erabaki duten langileak, eta sistemak biktimizatzen zaitu lan jazarpeneko egoerak biktimizatu zaituena baino gehiago.
- Gainezkatzeta, enpresa-sistema berriengatik, eta erantzun instituzional geldoa. Adibidea plataformak dira; Glovo, Unber, lanaren “uberizazioak” horrekin dauka zerikusia, sistema instituzionala ez baita behar bezain azkarra horretaz guztiaz legeak egiteko, eta oso atzetik doa, eta gainera, borondate politikorik ere ez badago, ezinezkoa da.
- Kultura demokratikorik eza lan ingurunean. Hori ez dakit nondik datorren. Ez dakit frankismo soziologikoa ote den. Ez dakit Espainian inoiz egon ote den delako demokrazia laboral hori, baina ni lanean hasitako lan sisteman ziurtzat jotzen zen goian daudenean agintzen dutela, eta izan kontuan osasun publikoan lan egiten dudala, eta ez, enpresan. Gerenteak, nire nagusiak, zuzendari medikoak... horiexek agintzen dute, eta haiek esaten badute lau paziente berri ikusi beharrean astean, bost ikus behar ditudala, nahiz eta 350 pazientez osaturiko zerrenda izan,

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

eta nahiz eta larrienak behin bakarrik ikus ditzakedan hiru hilean behin. Eta bost esan ondoren, itxaron zerrenda baldin badago, esaten dizute: sei ikusiko dituzu. Horrek esan nahi du paziente larriak lau hilean behin ikusiko ditudala, eta ez hiru hilean behin; eta hain larriak ez dauden pazienteak sei hilean behin. Ezin dut paziente berri gehiago ikusi. Baina haientzat, hori dilistak dira. Eta, gainera, esaten dizute: ez hadi kexatu, beste leku batzuetan paziente gehiago ikusten ari direlako. Kito. Orduan, ez naiz kexatuko, isilduko naiz, eta besterik gabe, harri zulatzen ari-tuko naiz, esaten didazuena, eta erakunde honetan ez dut ez hizpiderik, ez botorik.

Demokrazia erabat dago lanetik kanpo, eta demokraziak bertan egon beharko luke, langileak ateratzen baitu lana aurrera eta ahalmena izan beharko luke nola antolatzen den erabakitzeke, nahikoa den edo ez, eta ahalmena ere izan beharko luke bere lanean hartzen diren erabakietan neurri batean parte hartzeko. Eta batez ere, ez luke esplotazio baldintzarik onartu behar.

Horra zer den babesgabetasun ikasiaren egoera:



Horixe da sentsazioa. Arauak ez direla berdinak guztiendako. Ez duela berdindin balio nik kexatzeak edo nire nagusiak kexatzeak. Ez du berdindin balio nik delitu bat egiteak edo Eduardo Zaplanak egiteak.

Arau mailako baldintzak

- Behar ez bezalako prestakuntza arrisku psikosozialetan. Luzarozuzaroan, arrisku psikosozialak alde batera utzi dira; gauza fisikoei eman zaie garrantzia, gauza fisikoak neurtu dira.
- Behar adinako zaintzarik eza lan ikuskaritzaren aldetik eta jarduteko ahalmen urria. Hobe litzateke lan ikuskaritzak jarduteko ahalmen handiagoa izatea eta langile gehiago ere izatea. Gure herrialdean, ez dira betetzen ezta eduki beharko lireratekeen minimoen erdiak ere. Egia da, azken Lan Ministerioarekin, hori nahiko moldatu dela. Horretan ari dira baina Europako edozein herrialde baino askoz ere atzerago gabiltza.
- Malgutasun politikak. Une jakin batean enplegua malgutu zen jendeak gehiago lan egin zezan. Zer lortu da? Enpleguak prekarizatzea, ia ondoriorik ez duen kaleratzea, hau da, kaleratu zaitzakete gaixo egoteagatik edo gaixotzeagatik. Hori astakeria da.
- Nahasmendu mentala ez dago aitortua lan ondorio gisa. Gaur egun oraindik ere lan inguruabarrekin edo gertakariekin zerikusia duen depresiorik, antsietaterik edo edozein inguruabarrik baldin badu, eta nola izan daiteke lanera iristen zarenean nagusiak egunero oihu egitea edo esatea "zeinen gona motza daramazun, jar ezazu hobeki asteburue-

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

asteburuetan”. Horrelako inguruabarrak ez daude aurreikusiak kontingentzia profesional bezala, baizik eta arrunta bezala. Zer ondorio ditu horrek? Lehenik, diru ondorioa. Kontingentzia arrunten bajaren ordain-sari ekonomikoa apalagoa da profesionalena baino eta berez da bidegabea maila materialean. Baina aitortza mailan, zure diskurtsoa ezeztatzen ari dira: hau gertatzen zait ez ditudalako laneko inguruabarrak jasaten, edota, nagusia arratsaldeko seietan iristen denean, hau da, nire irteera orduan, eta esaten didanean gauza hau biharko behar duela eta, sistematikoki, arratsaldeko 8ak arte gelditzen zara. Políticas de flexibilidad. En un momento dado hubo mucho ro, se flexibilizó el empleo para que la gente pueda trabajar más. ¿Qué se ha conseguido? Precarizar empleos, un despido sin consecuencias prácticamente, que te pueden despedir por estar enfermo o porque te pones enfermo. Esto es una barbaridad.

Paziente asko ere, maiz samar, enpresa berekoak dira. Esaten dute han normala dela zure lanetik bi ordu beranduagoa ateratzea. Eta hori normaltasunaren barnean ulertzen da, eginen duzunaren barnean. Inor kontsultara antsietateak eta depresioak jota datorrenean, lo egin ezinik eta jateko astirik gabe, eta pisua galtzen ari dela, galdetzen diot: “Zenbat lan egiten duzu?” eta erantzuten du, “ez, normala dena lan egiten dut”; “zenbat da normala?”, “bostetan atera beharko nuke baina, azkenean, azken lau hilabete honetan, proiektu bat dela eta, egunero zortzietan ateratzen naiz eta asteburuetan ordenagailua etxera eramanen dut, ez bainaiz helburuetara iristen”. Eta zuk galdetzen didazu niri zer gertatzen zaizun? Normaltzat jotzen dutelako, enpresa horretan de-

nek egiten dutelako. Eta horretaz hizketan hasten garenean, esaten didate: “tira, batzuek nik baino botika gehiago hartzen dituzte”. Halako alderaketa bat dago batek lanera joateko hartzen dituen antidepresiboen eta antsiolitikoaren artean. Esaten dute, “nik lorazepam bat bakarrik hartzen dut; nire lagunak, berriz, sertralina, 2 mg-ko lorazepam hartzen du, eta noctamid lo egiteko”. Ez. Ez gaude ongi. Botikarik hartzen ez duena ere eta hori sostengatzen ari dena ere ez dago ongi. Inork botika hartuta joan behar badu lanera, agian ez du lan horretan egon behar, ezta lan baldintza horietan ere. Baina ez dugu hori salatzeko aukerarik, dela ezin dugulako, dela normala ez den zerbait normaltzat jotzen dugulako.

- Ikuskaritza medikoa, langileak zaindu eta kontrolatzeko agente gisa diharduena. Agian, epelak hartuko ditut hau esateagatik; gainera, txostenean ere ez baita horrela jaso, baina ikuskaritza medikoak nire kontsultan dauden pazienteen kalte fisikoaren %20 eragiten du. Ehunekoarena txantxa da, baina ez da hain txantxa... Ikuskaritza medikoak langileei jazartzeko politika darabil; hau da, ingurune sozialaren teoria horren arabera, langileak ahalik eta gehien aprobetxatzen dira, ahalik eta gutxien lan egiten dute eta “eskakeatzen” dira. Bajen kontrola; langileak joan behar du zerbitzu mediko hori ikustera gezurretan ez dela ari ikusteko. Zergatik? Jotzen delako hori egin eginen dudala. Ziurtzat jotzen da gaixo baldi banago eta joaterik ez badut, horixe da etxean gelditu nahi dudalako kolpe zorrik jo gabe. Ikuskera hori izugarri zabaldu da, denok dugu barneratua, eta denok esaten dugu: “halakoak jadanik hilabete t’erdi darama etorri gabe, pasatu egingo zitzaien...”. Denok

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

egiten dugu gainerako langileak zaintzeko agentearena. Eta esaten da, “jakina, gutxiago lan egin nahi dute, gehiago kobratu eta ederki bizi”. Begibistakoa da. **Jakina: gutxiago lan egin, gehiago kobratu eta gure lanetan gustura egon nahi dugu, eta horrek ez du esan nahi legea hautsiko dugunik.** Kontrara. Arazo nagusia presentismoa da: hau da, gaixo egonik ere, lanera joaten den jendea. Hori arazoa da. Gaixo egonik lanera ez doan jendea arazoa da, baina lanek eraginda daude gaixorik, jende asko, baina ez da jendeak lanari itzuri egin nahi diolako. Ba, badirudi hori lanaren urrezko legea dela.

Nik master bat daukat kudeaketa klinikoan, baina ez dut curriculumetan aipatzen, bertan ikasitakoak ez ninduelako toki askotara eraman. Besteak beste ikasten zen (langileak zuzentzen dituzten kudeatzaileentzat) ziurtzat jotzen zela langileak eskakeatu nahi zuela eta hori kontrolatzeko bideak jarri behar zirela. Eta ni osasun mentaleko zentro batean lanean ari nintzela, egunean hamalau paziente ikusten eta paziente berriak eguneko hamarrera igotzen zizkigutenean, gure pazienteak ongi ardatzea besterik ez genuen nahi. Gainera, gaixo bazeunden, zuk zerorrek agenda hartu eta pazienteei deitu behar zenien beste egun baterako hitzordua emateko. Eta zuk zerorrek lotsatua eta errudun sentiturik, pazienteei esan behar zenien bi hilabete geroago ikusiko zenituela, gaitxotua zinelako. Edota ikastaro bat bazenuen, ba hor konpon. Eta aguantatu ere egin behar zenuen kudeaketa klinikoko ikastaro horretan aipatzea langileok eskakeatzen aritzen garela. Baina... Hobe, kudeatzaileek, nagusiek eta zuzendariak pentsatzen dutena langileok ere pentsatzea. Agian, gauza aldatuko litzateke. Baina oso ezberdina da, langileok lana

aurrera ateratzen ari baikara, eta haiek pentsatzen ari dira aprobetxatu nahi dugula. Ikuskaritza medikoa horri muga jartzea bezalakoa da, denetan engainatzen duzun susmoa. Pazienteak hautsita datoz, izugarri umiliaturik eta jazarririk, zalantzan jartzen baita gaizki eta gaixo daudelako beren lekukotasuna, ikaragarria da.

Ojalá lo que piensan los gerentes, los jefes y los directivos lo pensáramos los trabajadores también. Igual la cosa cambiaría. Pero es muy distinto porque los trabajadores estamos sacando el trabajo adelante y ellos están pensando que queremos aprovecharnos. La inspección médica viene a ser una contención de eso, una sospecha de que engañamos con todo. Los pacientes vienen destrozados, con un nivel de humillación y persecución, de puesta en cuestión de su testimonio sobre que están mal y enfermos que es terrible.

Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Un juez rechaza inhabilitar a un peón para trabajar en la construcción tras perder un ojo en un accidente laboral

El magistrado le deniega con ello la incapacidad total permanente porque "conserva la plena visión del derecho, la fuerza, la capacidad de bipedestación y la habilidad manual"

Hau egunero ikusten dugu. Hots, nahasmendu mental larriko pazienteei ez zaie lan ezintasuna ematen, sistemaz aprobetxatzen direlako, "ordainsaritxo jasotzera" doazelako. Kasu, kotizaziorik gabeko pentsioa 400 € dira hilean, eta ea nor bizi den horrekin.

Orduan, zer ondorio topatzen ditugu? Antsietatea, depresioa eta nahasmendu adaptatiboak. Hemen diagnostiko horiek jarri ditut, baina ez ditut denbora osoan jarri nahi izan eta sufrimendu psikikoa esatea hobetsi dut; gero azalduko dut zergatik.

Kontsultan, esaldi bat esaten dugu: "Gelditzeko gauza ez bagara, azkeanean gorputzak geldituko gaitu". Eta horixe ikusten dugu. Ez garela gelditzeko gauza, baina orain arte oker jokatu dugu eta ez diogu galdetu geure buruari zergatik ez garen gelditzeko gauza. Eta honakoa ageri da txostenean: ez gara gelditzeko gauza, normalak ez diren inguruabar ba-

tzuk normaltzat jotzen ditugulako. Hau da, ni lanera antsiolitikoak eta antidepressiboak hartuta joaten banaiz, nirekin du zerikusia, nik lan hori egiteko gauza izan beharko nukeelako, baina errefortzua behar dut. Pazienteek berek esaten dute "kafeina eta nikotina hartuta, konbinazio kimiko batzuk egiten ditugu, lanean era onargarrian egoteko". Arrazoi hori dela medio ez da jendea gelditzen; jendeak ez dakielako gelditu behar duela. Eta beste askotan, langileak ez du gelditzeko aukerarik, zeren, gelditzeak esan nahiko luke atzean badugula babes bat, baina ez dugu halakorik.

Gorputzak geldiarazten zaitu, antsietatearen bidez, depresioaren bidez, edota nahasmendu adaptatiboa diagnostikatzen diogu. Ez dut uste hori baino termino zitalagorik dagoenik prekarietatea eta sufrimendu psikikoa dugunean gertatzen zaiguna aipatzeko. Hitzez hitz zeure buruari esatea da ezin zarela egokitu, zure sufrimendu psikikoak egokitzapen ezarekin duela zerikusia. Zertara egokitzea? Lan ingurune gaixo batera? Ez, aizu, hori gauza sana da. **Ni lan ingurune gaixo horretara egokitu ahal izatea nire osasun ahalmenaz mintzo da, ez gaixotasun batez.** Arazoa da diagnostikoak direla langileak inguruabar horietan babesteko ditugun tresna gutxietakoak. Zer gertatzen da? Kalte egiten dizun inguruntik babesteko lan baja mantenduko badizut, txosten batean jarri beharko dut gaixo zaudela eta diagnostiko bat jarri behar dizudala. Horrek zer dakar? Ba, arazoa zuk duzula, gaixotasun bat duzula. Nik txosten bat egin eta hauxe jarri ahal izanen banu, hots, "enpresa hau gaixo

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

hau gaixo dago; mesedez, emaezue baja enpresari, gaixotasun bat due-lako”, nik eginen nuke; baina hori ezin egin. Esaten nien beti etxean be-tidanik etxeko lana egin duten emakumeei eta, horrez gain, hogeitase-me-alaba, bi erraina zaintzen aritu direnei, horretan bizitza uzteraino, ino-lako ordainsaririk eta aitortzarik izan gabe. Hau da, nik egin ahal izatera hori aitortzeko moduko txostenik, hots, “emakume honek egin duen lanak...” eta hori maila instituzionalean aitortuko balitzaizu, horixe egin beharko nuke mediku gisa. Baina gaixo zaudela bakarrik esatea uzten didate eta, orduan, X bidez konpentsatu behar zaizu.

Halakoetan ematen dudana erantzuna: Psikofarmakoak, psikoterapia? Ez dakit. Zalantzak ditut eta uste dut psikofarmakoak, hau da, gauzarik zabalduena profesionalen denbora ezaren ondorioz, osasun publikoko beste arazo bat sortzen ari direla. Lan prekaritatea eta horrek eragiten duen sufrimendu psikikoa osasun publikoko arazo dira, baina arazo ho-rrretaz gain, esan behar da sufrimendu psikikoa horri ematen ari zaion erantzunak osasun publiko beste arazo bat sortu duela, eta biak lotzen joaten gara. Orduan, hipnotikorik eta antsiolitikorik gehien kontsumi-tzen dituen herrialdea gara. Eta zein da erantzuna? Psikologoak jarriko ditugu. Falta dira psikologoak, psikiatrak, osasun mentaleko erizainak eta gizarte langileak? Bai, falta dira. Zalantzarik gabe. Baina, lan prekari-etatea psikologo bidez konponduko dugu? Duda egiten dugu. Genero indarkeria psikologo bidez konponduko dugu, horrek bultzatzen ditu-elako sufrimendu psikikoa izatera gizon eta emakumeen % 50? Duda

egiten dut.

Orain, psikologoak eskatzen dira ikastetxeetan, lan esparruetan, psikologo-ak lehen laguntzan, psikologoak beste psikologo batzuk artatzeko, igerile-ku publikoetan, supermerkatuan... Mundu guztiak izanen du bat. Eta nola alda dezake psikologoak lan prekaritatea? Ez dakit. Horra bururatzen ari zaigun konponbidea, baina... bai, psikologo gehiago jarri behar dira eta hobeki pentsatu non, leku sozial batean eta gauzak aldarrikatzeko aukera izan dezatela. Izan ere, askotan, psikoterapiak horixe itzultzen dizu, hots, arazoak zurekin duela zerikusia, ongi egokitua ez zaudelako, edo ongi erantzuten ari ez zarelako, edo *arousal* handia duzulako lan eskakizunen aurrean, eta esan behar da ezetz, hau da, lan eskakizunak daude gaizki; ez, ordea, zure erantzuna.

Tira, psikologorik eta psikofarmakorik jartzen ez badugu, zer egin? Sindika-tua. Hori beti izan da dilema, eta hori nik uste dut Marta Carmonaren eta Javier Padillaren *Malestamos* liburuan dagoela hobekien adierazita.

“Zuk ez duzu terapeuta behar, sindikatu bat baizik”. Hori dilema faltsua da, egia esan; izan ere, sindikatuak lan abusuari aurrea hartzen diolako. Hau da, sindika-tuta egon behar dugu? Bai, baina sindikazio maila handiagoa izanez (eta hori ere txosteneko estatistike-tan ikusten da) lan abusuak izatea prebenitzen dugu, gure lan baldintzak oinarritik hobetzea. Gero, sindika-tuek beren arazo guztiak izanen dituzte eta oso kriti-kagarriak dira, baina sindikatu sendoak izate hutsaren



Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

ondorioz, bulegoetan esaten dute: “ez, hau ezin dugu egin, sindikatuek gure lepo-hezurrari helduko diotelako”.

Holakorik ez dugunean eta lanean gizabanako isolatu gisa gaudenean, inork ez dio inoren lepoari heltzen.

Psikologoak behar dira? Bai, pertsona batzuek hondamen maila handi handia dutelako eta babes eta laguntza behar dituztelako eta, zenbaitetan, psikofarmakoak ere bai. Psikologoek, ordea, ez dute arazo hori konponduko, ezta gainerako gehienak ere, horietarako psikologoak jartzzen saiatzen ari bagara ere.



Osasun mentaleko sistemaren funtzioak lan prekarietatean

Egia esateko, osasun mentaleko sistemaren funtzio orokorrak izanen lirateke. Badira onak eta badira txarrak. Batzuekin erosoago sentitzen naiz eta, beste batzuekin, gutxiago.

1. Lehena lan indarraren konponketa izanen litzateke. Osasun mentaleko sistemak zeregin bat dauka: jendea konpontzea. Horregatik dago jendea antidepressiboak eta antsiolitikoak hartzen; baten batek horixe errezetatu die, berriro lanera itzul daitezzen, iduri duelako horixe dela kontu nagusia, hots, lanera joatea. Nola? Hala edo nola. Gu ere gara lan prekarietatearen sistema horren kolaborazionista.

2. Egiatzko erregimenaren berrespena. Badirudi batek lanean egon behar duela, gauza guztien gaintetik. Sufrimenduari lagun egiteko zeregina ere badugu, eta hortik heldu da hemen egiten ari naizena, eta txostenean egiten duguna: sufrimendu psikikoa eragiten duten faktoreak atzematea eta salatzea. Hori osasun mentalaren zeregin deontologikoa da eta beti ahazturik gelditzen zaigu. Lan klinikoan ari gara eta kanpoan

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

salatzea ahazten zaigu.

3. Pazienteak eskura dauden tresnen bidez babestea. Azaldu den bezala, jendea kontingentzia arruntegatik bajaran dagoela aitortzeko txosten horiek guztiak (ez baitugu besterik egiteko aukerarik) dira eskura ditugun tresnak jendea babesteko, baina era gaiztoan erabili behar ditugu, hau da, gustatuko litzaidake enpresa gaixo dagoelako beste txosten bat egitea edo, gutxienez, aitortzea kontingentzia profesionalak direla, eta ezin dut. Edo esatea, ez duzu gaixotasunik, baina diagnostiko bat jarri behar dut, zeren, bestela, ez baitizute baja emanen.

4. Eta errealitatearen eta egiazko erregimenaren arteko kontraesanaren sufrimendu psikiko emergentea artatzea.

Osasun publikoan, kausen kausez mintzatzen gara beti. Hau da, badakigu prekaritateak sufrimendua eragiten duela, baina zerk sortzen du lan prekaritatea? Zergatik dago hori hor? Ba, ez da gertakari isolatua, baizik eta diskurtso, uste, politika, araudi eta praktika jakin batzuen ondorioa baizik, eta horrek guztiak lan eta enplegu prekarizatua sortzen du.

Hau da, hain zabaldua dagoen lan sistema hori normaltasunean txertatu dugun sistema bat da, eta hori nonbaitetik dator. Ia beti Margaret Thatcher ekartzen dut hizpidera nire aurkezpenetan, oso argia zelako. Esaten zuen, “ekonomia metodoa da; xedea da bihotza eta arima alda-

tzea”.



Eta arazoa hori da. Izan ere, **sistema ekonomiko honek azkenean gure bihotza eta arima aldatzea lortu du, eta normalak ez diren gauzak normalizatzen ditugu**, eta ohitu garen harreman eta kontakizun mota horiek kaltea eragiten digute behin eta berriz bai guri, bai gure lankideei. Baina berdin dio, horiek errepikatzen segitzen dugu. “Ez dago gizarterik. Gizonak, emakumeak eta familiak bakarrik”. Horrek lanen alienazioa baldintzatzen du, eta bertan, ez gara kolektibo gisa bizi. Joan den egunean ateratako estatistikak esaten zuen biztanleriaren % 80 klase ertainarekin identifikatzen zela eta % 20 bakarrik langileriarekin. Eta nik pentsatzen nuen; ba, agian, nik ezagutzen ez dudana aristokrazia batekin bizi gara. Baina, benetan, nik ezingo nuke bizi lanera joan gabe, eta ho-

Lan prekaritatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

gara. Baina, benetan, nik ezingo nuke bizi lanera joan gabe, eta horrek baldintzatzen du, lanera joanda edo ez joanda. Lanera bazoaz, langileklasea zara. Eta aukera baduzu lan egin gabe bizitzeko, ez zara langileklasea... Eta, hala ere, inor ez da identifikatzen kolektibo horrekin, “gizonak, emakumeak eta familiak” garelako.

Estraktibismoa

Zerekin du ikusia estraktibismoak? Gogoeta-planoarekin, eta lan prekaritatea sortzen duten baldintzen jatorriaz ez pentsatzeko saiakerarekin. Bizi garen gizartea estraktibismoan dago oinarritua; funtsean, sistema ekonomikoagatik; baina ez da soilik ekonomikoa, baizik eta ideien eta balioen sistema ere bai. Horrek esan nahi du edozein gauzatatik ateratzen dela etekina, ahal bezainbeste. Ez soilik maila zehatzean, baizik eta edozein gauzatatik.

Testuinguru patriarkalean ikusten dugu, eta testuinguru horretan emakume guztien erabilera egiten da ordaindu gabeko zeregin erreproduktibo bidez. Ez zaie ordaindu etxean lan egiten duten emakumeei edota, are, ezta etxe-lanean ari direnei ere, lehenago aitorturik ez zegoen lan erregimenenean. Hori pertsonen lana erauztea da haiei ia ordaindu gabe.

Halaber, testuinguru kolonialean dago. Askoz ere nabarmenagoa da herrialde aberatsetan eremu periferikoetan baino; herrialde batzuk pobretu dira beste batzuen aberastearen kontura.

Testuinguru ekozidan: ez gara gauza erauzketa gelditzeko, inguru osoan ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeari uzteko. Inguratzen gaituen ingurunea gu ere bagara. Horrek ekarri du lan sistema estraktibista izatea. “Ahal dudan guztia aterako dut zuregandik”, pentsatu gabe pertsona zaren aldetik badituzula bizi-baldintzak, mugak eta hauskortasuna, beharrak... Nik asmo bakarra baitut, zu ahalik eta gehien estutzea. Naturari berdin egiten zaio. Klima-krisiaren eta lan prekaritatearen arteko baliokidetasunak horiek dira.



Lan prekarietatea eta osasun mentala. Ezagutzak eta politikak

Ezinezko da mugarik gabe haztea mugak dituen lekuan. Eta, era berean, ezin da mugarik gabe erauzi langileengandik. Ez da posible. Dena dela, egiazko erregimen batean gaude, eta esaten digu baietz; beraz, langileei era mugagabean eskatzen digutenean, eta gainera, langileak bat datozenean eskaera mugagabe hori betetzeko, zer gertatzen da? Hausten garela. Bai exijitzen dutenek bai egiazko erregimen estratibista horretan ematen dugunok pentsatzen dugu ez genukeela gelditu behar eta, hala ere, gelditu egin behar dugu. Edo, bestela, azkenean, gorputzak geldituko gaitu.

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

Mahai ingurua: Rosana Corbacho eta David Márquez

Rosana Corbacho psikologo klinikoa eta humanista espezializatua da musikaren industrian duela hamabost urte baino gehiagotik. Rosanak bere kontsultan lan egiten du, M.I. Therapy, artistekin eta sektoreko beste profesional batzuekin sintoma klinikoen tratamenduan eta garapen eta hazkunde pertsonalean. Osasun Batzordeko kontseilaria da AFEMen (Association for Electronic Music). Keychange nazioarteko programan berritzaile izendatu zuten. Nazioarteko biltzar eta jaialdietan eztabaida-mahaietan parte hartu du, eta tailerrak eman ditu Primavera Sound, Tallinn Music Week, Reeperbahn Festival eta La Casa Encendidan, besteak beste.

David Márquez politologoa eta kultur sortzailea da. Arte eszenikoetan, arte bisualetan, edizioan, kongresu eta ekitaldien antolaketan, programazioan, kudeaketan, ebaluzioan, zuzendaritzan eta abarretan jardun du. Gaur egun, Project Manager da, eta Radar Cultura enpresako zuzendaria. Aholkularitzan, analisisian eta kultura-kudeaketan dihardu. Mezenasgoari, parte-hartzeari eta publikoei edo iraunkortasunari buruzko ebaluzio-, aholkularitza- eta ikerketa-proiektuetan lan egiten du.

Aurrerapena

«Garrantzitsua da, halaber, geure buruari galdetzea ez soilik jendeak nola hartuko duen, baizik eta era berean nondik egiten naizen. Izan ere, batzuetan erabakiak honela hartzen dira: “beldur naiz ez ote didaten errua botako, lehengo egunean bezala kalean”.»



Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

David Márquez: eskerrik asko KUNARI eta zorionak, elkarte aktiboa zaretelako; gure elkarteek ez baitute heldutasunik eta denek ez dute osasun egoera egokirik. Nik badut zuen berri eta zoriondu nahi zaituztet .

Mahai inguru honen izenburua azaldu zidatenean eta hartara gonbidatu nindutenean, nola-halako lotsa izan nuen; izan ere, zerbait badakit kultur sektoreaz; “osasun” kontzeptuaz, berriz, agian ez hainbeste, ikuspegi zein den. Nolabaiteko lotsak hartu ninduen, zeren, ondoan ditudan lankide asko izugarri adituak baitira osasunaren gaian. Neure buruari galdetu nion zer ekarpen ote nuen nik zuentzat erabilgarri. Alde horretatik, gogoeta moldeko komunikazio txiki bat egituratzen saiatu naiz, kultur arlotik nola-halako testuingurua eman diezagun. Hau da, diagnostikoan denok bat gatozela uste badut ere, denok argi badaukagu ere, uste dut oso ongi datorkigula urrunagotik begiratzea, zehatz-mehatz ikustea non sartzen dugun diagnostiko hori, eta ikustea, batez ere, zer esparrutan jardun daitekeen. Hori guztia pentsatu dut agian are oinarrizkoagoa den gogoeta batetik, hots, azken buruan kultur kudeatzaile gisa egiten dugun lana ez dago oso urrun gizaki gisa legokigukeenaren lanetik, hau da, lan egitea gauzak zaintzeko.

Ohartu naiz nire egunerokotasunean dagoen kontu batez, eta pentsatzen dut zuen guztien egunerokotasunean ere badagoela, hots, denok hasten dugu gure eguna zaintzen bidez, dela hurbil dugun jendea zainduz (seme-alabak, familia); dela profesionalentzako zaintzez, lankideentzako zaintzez, eta azken finean, horrek denbora osoan birsortzen du gure giza izaera, baina batzuetan hori ahaztu egiten zaigu geure lanbide

-testuinguruetan gaudenean. Hori gogoetagai nerabilen, hiruzpalau dei eginez hasten dudalako nire eguna, familiari, amari. Azken buruan, niretzat erritua bezalakoa da, nire oinarrizko ehunarekin egunero berriz konektatzen nauena. Finean, hori izan behar dugu kezka-iturri, eta horregatik gaude hemen, zeren, askotan, gure lanbidean ez baikara deskonektatzen oinarrizko ehunetik, hau da, ehun gizatiar hutsetik.

Orduan, ondorio bat atera nuen, hots, ezin nuela osasun kontu hain teknikoez hitz egin, ez bainaiz osasun teknikaria, baina ekarpenik egin diezazuket kultur sektorearen ikuspegitik. Gaia mugatze aldera, bi kontzeptu hartu nahi nituzke ardatz: osasun egoera eta kultur sektorea. Osasun egoeraz mintzatzean, giza materiaz mintzo naiz. Eta kultur sektoreaz mintzo naizenean (nahasmendurik ez eragiteko) kulturarekin lotzen den esparru ekonomiko eta sozialaz ari naiz. Ez gara ari kulturaz ikuspegi antropologikotik begiratuta, ezta kontzepzio horiez guztiez ere. Testuinguru honetan berriro gogora ekarriko badut ere, uste dut ona dela errepikatzea, gero gudan nahasmendurik ez sortzeko, eta batez ere, inpostortzat har ez nazazuen, hori esparru kontzeptual horretatik prestatu baitut.

Halaber, ikuspegi sistemikoa ekarri nahi dut hona. Kulturgintzaren osasun egoerara hurbildu nahi dugu; ez, ordea, sektore ekonomikoarenera, baizik eta kulturgintzako pertsonen osasun egoerara; eta osotasunari, sistemari, dagokion ikuspegi azaldu nahi dut, eta hortik heldu da ikuspegi hori.

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

«Todavía no he encontrado ningún problema, por complicado que sea, que no se vuelva aún más complicado cuando se enfoca de la manera adecuada».


Poul Anderson

«Crees que como entiendes el “uno” entenderás el “dos”, porque uno y uno suman dos. Pero olvidas que también debes entender el “y”».

Proverbio sufí

Bi aipu interesgarri ekarriko dizkizuet, ikuspegi hori ikus dezazuen; aipukok bi alderdi azpimarratzen dituzte: bata, arazoak ez dira inoiz errazak, korapilatsuak baizik, eta, azken batean, kontua da ikuspegi desberdinak jorratzea azterketa osatzeko; eta, bigarrena, sufi esaera zahar bat, oso interesgarria iruditzen zaidana eta geure buruari gogoraraztea inoiz soberan ez dagoena, hots, bat gehi bat ez dira bi, zeren ba baitakigu zer diren bat eta bat, baina ez dakigu zer den “gehi” hori. Funtsean, arazo batzuk aztertu nahi baditugu, agerikoa denari ez ezik, loturei ere erreparatu beharko diegu, esanahi handia baitute. Horra hor mintzagai izango dudanaren atariko.

Enfoque sistémico



Zer da ikuspegi sistemikoa? Oso azkar gogoratuko dizuet. Gure kultur sistema oso konplexua da, oso zabala, sistemaz eta azpisistemaz betetako metasistema bat. Funtsean, beti da fluxu bat, non input batek prozesatu egiten duen, zerbait sortzen duen eta, azkenean, irteera edo output bat ekartzen duen; funtsean, beti dago itzulkin bat, eta zirkulu horrek guztiak beti jasotzen du ingurune baten eragina, eta horretaz ere hitz egingo dugu.

Nola definituko genuke kultur sektoreari aplikatutako sistema-kontzeptua? Kultur sektorea elkarri lotutako elementuen multzoa da, modu koherentean antolatutako helburu bat lortzeko. Eta hor nabarmenduko ditut: elementuak, interrelazioak eta eginkizuna edo helburua, hau da, edozein sistemaren funtzionamenduaren eta definizioaren oinarrizko hiru elementuak. Bada, nire ustez, osasun egoeraz hitz egiten

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

dugunean, batez ere interrelazioez ari gara. Eta interrelazioez ari garenean, funtsezko hiru kontzeptu bereizten ditut: zaintza, segurtasuna eta jasangarritasuna.



Zerikusia dute harreman horiek kultur sektorearen barruan mantentzeko moduarekin. Zaintzez ari garenean, pertsonen edo pertsonen arteko zaintzei, prozesuei eta inguruneari egiten diegu erreferentzia. Segurtasunaz ari garenean, ekintza bat egiteko bezain eroso sentitzeaz ari gara; eta segurtasun ekonomiko eta profesionala izateaz hitz egin beharko genuke (bidezko ordainsaria, prekarrietaterik eza, eta abar, baina baita errekonozimendu profesionala ere), bai eta segurtasun fisiko eta mentala izateaz ere, eta segurtasun politiko eta soziala izateaz ere bai. Azken hori gure gizartean oso agerikoa dela dirudien arren, baliteke kolektibo batzuetan hain agerikoa ez izatea. Etorkinen edo bazterketa mota batean dauden pertsonen kasua da. Interrelazioek ere jasangarritasunaren kontzeptura ere eramaten gaituzte berriz, kontzeptu gutzit zeharka-

koa da, eta, gainera, edozein sistemak bere jasangarritasuna du xede, hots, jasangarria izatea. Zeharkako kontzeptua bada ere, hemen, interrelazioei dagokienez, lankidetzarekin eta elkartasunarekin zerikusia duten gaiak aipatzen ditut. Jasangarriagoak izatea da kontua, lankidetzan arituz eta sistema solidarioak bermatuz.

Ibilbide txiki bat egingo dut zeri buruz ari garen ikus dezazuen eta zuen errealitateetara eramaten saia zaitzeten. Zaintzez ari garenean, pertsonen ari gara. Hemen sartzen ditugu kultur langileak, artistak, herritarrak, publikoak, entzuleak, kolektiboak, komunitateak, gutxiengoak, etab. Horiei eman dizkiegu zaintzak, rol sistemiko horretan egiten dugun lanaren bidez. Baina, era berean, prozesuekiko zaintzaz ari garenean, kultur kudeaketako prozesuak edo kultur prozesuak barnebiltzen dituen kate osoaz ari gara, hau da, prozesuak hasten direnetik ixten diren arte. Zaintzak plangintza, gauzaperen, kontrol eta ebaluaziorako tarteko faseetan txertatzea.

Inguruneaz ari garenean, uste dut erraza dela ingurune horiek zein diren interpretatzea, baina batez ere ingurune fisikoa, soziala eta naturala. Fisikoa, gure espazioak direlako, haietan lan egiten dugulako; eta soziala, elkarrekin erlazionatzen garen ingurune osoa da, eta hori pertsonak sar genitzake berriz, baina kasu horretan, pertsonak ez gizabanako gisa, kolektibo gisa baizik. Eta, gero, baita ingurune naturala ere, azken bolada honetan berriz ere garrantzi handiagoa izaten ari dena eta kultur sistemaren beraren jasangarritasunaren kontzeptuarekin lotuta dagoena; izan ere, ez gara ingurune naturaletik berezita dagoen sistema isolatu bat, baizik eta ingurune horren barnean gaude txertatu-

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

txertatuta; horrenbestez, jasagarriak izan behar dugu ingurumenaren ikuspegitik.

Segurtasunaz ari garenean, alderdi ekonomiko eta profesionalaz, fisikoaz eta mentalaz, eta politikoaz eta sozialaz ari gara; bai eta etikarekin, balioekin, erantzukizunarekin, pertsonen eta taldearen kudeaketarekin, konpromiso pertsonalarekin eta antolamendu arloko konpromisoarekin zerikusia duten kontzeptuez ere.

Aipatu dudan jasagarritasunaz ari garenean, horrek zerikusia du izan ditzakegun eta jasagarriak izan beharko luketen interrelazioekin; hemen hainbat kontzeptuz mari gara, hala nola gobernantzas, erantzukidetasunaz, enpatiaz, zerbitzu publikoaz eta interes orokorraz (edo interes publikoaz, desberdina dena) eta gardentasunaz eta kontuak emateaz.



Azken buruan, kultur sisteman diren interrelazioen testuinguruaren berrikuspen honen bidez, pentsarazi nahi dizuet zuen lana sistema kultural batean txertatzen dela, eta, batez ere, osasunarekin eta zaintzekin berriaz zerikusia duten gaiez ari garenean, edota pertsonekin izan behar diren arretekin lotura dutenez ari garenean, ez ahaztu sistema askoz konplexuago batean gaudela, eta gainera, azpisistema eratorri askok osatua dagoela eta, beraz, irtenbide partziala duen zerbait bezala ulertu behar dela. Eta hori oso etsigarria izan daitekeen arren, uste dut ikuspegi intelektualetik zintzoagoa dela horretan pentsatzea sistema orokorrean aldaketa egitean baino.

Bestela esanda, nahiz eta gure errealitatea nahiko prekariora eta deserosoa izan, eta batzuetan muturreko egoeretara ere eramaten gaituen, sistema ez da eroriko, gutariko batzuek hori pentsatu edo esan arren. Baina gure kultur sistema aldatzen joan gaitzake. Sistemara egokitzeko gaitasunarekin lotutako beste kontzeptu batzuk azalduko dizkizuet. Agian baliagarria izan daiteke gure ekintzak eskema honetan txertatzea.

Kultur sistema bat arrakastatsua izatea lor dezakegu; horrek esan nahi du sistema egokitzea, berritzea, berrikuntzari, erresilientziari, moldagarritasunari, etab. lotutako kontzeptua izatea. Eta sistema arrakastatsua izan dadin, sistemen teoriaraino hainbat gako bereizten ditugu: erresilientzia, autoantolaketa eta hierarkia. Sistema arrakastatsu orok batez ere oso presente izan behar du erresilientziaren kontzeptua eta, batez ere, ongi bideratua; izan ere, erresilientzia, orain arte zuetako askori, moldagarritasunaren kontzeptua iruditzen zaizue, beti era negatiboan: hau da, lan gehiago ematen digute eta onartu egiten dugu, gure baldintzak

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

prekarizatu egiten dira eta onartu egiten dugu, eta nolabaiteko erresilientziarekin segitzen dugu lanean testuinguru horretan. Erresilientzia, ordea, ez da hori bakarrik; hau da, sistema bere jasgarritasunera berea egokitzen lagunduko lukeen hori ere bada; eta horixe aipatu behar dugu, hain zuzen ere, sistema dagoen osasunarekin edo zaintzekin zerikusia duten disfuntzio horiez guztiez ari garenean.



Gogoratu beharra dago erresilientzia ez dela agortezina. Elastiko bat bezala ikusten baduzue, une jakin batean, asko luzatzeagatik ere, hori jada ez da elastikoa izango eta, azkenean, hautsi egingo da. Kasu horretan, arazo bat sortuko luke sistema barnean. Mugak dituen, gogoratu beharra dago. Erresilientzia ongi dago, beharrezkoa da, baina era negatiboan muga du. Oroitaraziko dizuet, halaber, gure sistemak denboraldi bat daramala funtsean hobetzera bideratua sistemen teorien produkti-

bitatea edo egonkortasuna deituko genukeen hori: hau da, ekoiztera bideratu da, baina ez, ordea, haren erresilientzia bera era positiboan hobetzera, eta horrek zuetako askori ere eragiten dizkizuen egoeretara garamatza, hau da, lanean eta lanean ari zarete, onartuta eta onartuta, baina sistema bera berritzeko edo hobetzeko sortu beharko litzatekeen bestelako erresilientzia hori gutxitan sortuta, edo eraginda edo bilatuta. Ikuspegi produktibista huts horretan, ahazten zaigu sistema bera egokitu eta aldatu behar dugula, behar diren aldaketak sortzeko eta, horrela, sistema bera jasangarri bihurtzeko. Hau da, erresilientzia beste ikuspuntu batetik landu beharra dago.

Autoantolaketa sistema kultural arrakastatsu ororen beste gakoetako bat da; horrek esan nahi du sistema arrakastatsuek inteligenteak direla, beren buruarengandik ikasten dutela, adimena beren baitan berrinbertitzen dutela eta hobetu egiten direla. Horixe da, adibidez, hemen egiten ari garena: geure burua antolatzeke eta sistema gisa hobetzeko behar besteko ezagutza sortzeko modu bat da. Horrek beti sortzen du nolabaiteko ezintasuna aurreikusteko, bai eta heterogeneotasuna ere, eta urduri jartzen ditu sistema barneko beste elementu batzuk; baina, bazuetan, beharrezkoa da praktika horiek sortzea. Era berean, azpimarratzen dut sistema ez dela hain autoantolatzailea, ez dela hain adimentsua, zenbat eta gehiago bideratu produktibitateara, eta alderantziz. Produktibitatean zenbat eta gehiago galdu edo produktiboak izatera zenbat eta gutxiago bideratu, orduan eta gehiago irabaziko dugu erresilientziaren izaten, eta autoantolaketarako edo adimen autoaplikaturako gaitasunean ere gehiago irabaziko dugu.

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

Beste gakoa hierarkia da. Sistema arrakastatsuak beti dira antolatua. Esan nahi dut, adibidez, kultur sistema bati buruz ari bagara, azpistema batzuk egongo lirakeela barruan: banaketarena, ekoizpenarena, eta, nahi izanez gero, askoz gehiago banatzen ditugu, hots, banaketaren azpistema arte eszenikoetan; zabalkundearena, musikan, etab. Eta hori modu askoz hierarkikoagoan ikusi nahi baduzue, subsidiarotasun-printzipioaz mintza gintezke, gure administrazioei dagokienez: hots, administrazio zentralari legozkiokeen erantzukizunak, kultur sistemarenak bere eskala autonomikoan, eta gero toki-mailan. Goi-sistema bat baldin badago (goian dagoen horietakoa), eta gero funtzio batzuk gauzatzen dituzten beste azpistema asko badaude, sistema arrakastatsu batean ohikoena izaten da askatasuna ematea, eta ahalbidea azpiko azpistemek nolabaiteko autonomiarekin funtzionatzea, horrela dinamika askoz funtzionalagoak sortze aldera. Funtsean, ongi funtzionatzen duten sistemek ongi funtzionatzen dute oinarritik ongi funtzionatzen dutelako, eta atzera elikatzen diren sinergia batzuk sortzen hasten dira, bai auto-antolaketan, bai goranzko erresilientzian. Era berean, adierazi nahi dut hierarkiak, benetan, oreka bilatzen duela ongizatearen, eta azpistemien askatasunen erantzukizunen artean, sistema orokorrari dagokienez.

Horrenbestez, erabilgarria izan daiteke gako horietan pentsatzea ikuspegi sistemikoari dagokionez, osasun eta zaintza arloko arazoak tratatzeko orduan.

Nola hobetu gure sistema?

Bereizketa bat egin nahi dut, erabilgarria izan daitekeelakoan, bi eremu hauen artean: sektore publikoa eta sektore pribatua. Osasun gaiak zeharkakoak badira ere, eta, jakina, gai horiek kultur sektorearen barnean eta beste sektore askorekin partekatzen badira ere, nire ustez, “bat gehi bat” horren “eta” ulertze aldera, sektore publikoa eta pribatua ere bereizi behar dira, dinamikak desberdinak direlako. Dena den, sektore pribatuan jarduteak erabilerak aldatzera eta praktika berriak egitera eramaten gintuzke, segurtasuna eta jasangarritasuna bermatuko duten lan inguruneak eratzera, elkarlanean eta elkartasunez. Denak ekintzara bultzatzen gaitu gehiago. Agian sektore publikoan, estrategiak beste leku batzuetara bultzatu beharko gintuzke. Leku horiek zerikusi handiagoa dute *advocacy*rekin, kultur arloko sektore publikoko langileen defentsarekin, baina, era berean, praktikak aldatzera eramanez gaitzake, gure egiteko modua eguneratzera, eta, jakina, araudia aldatzea eskatuko liguke, askok dakizuen eta aldarrikatzen duzuen bezala.

Rosana Corbacho: Hori azalpen osoa zinez; hainbeste maila eta dimentsiorekin, azkenean, non gaude pertsona bakoitza? Nola sentitzen zarete? Hain zuzen ere, OMEk osasun mentalaz duen definizioak honelako zerbait esaten du: “osasun mentala egoera orokor bat da, ongizate sentazio bat eta bizitzaren erronkei arrakasta handiagorekin edo txikiagorekin aurre egiteko sentazio bat .

Nolabait, erabat gaizki ez gaudela dirudi. Gauza batzuk zailak izan daitezke nire ingurunean, nire lan-bizitzan, bizitza pertsonalean, baina sen-

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

tzen dut horiek gainditu edo kudeatu ditzakedala, ni neu hautsi gabe. Orduan, klinikan ere, osasun mentala ez da ulertzen gauza indibidualizat, elementu erabat kolektiboa da. Psikologia klinikoan tratamendu bat egiten denean, kontuan hartzen da, halaber, zerk eragiten dion osasun mentalari, baina ez era negatiboan bakarrik, hau da, zerk huts egiten duen, baizik eta pertsona zer puntu sendotan bermatu daitekeen. Agian, antsietate-krisi baten edo estres-nahasmendu baten diagnostikoa daukat; horretaz gero hitz egingo dugu, hori baita aurten eta ia z kontsultan gehien ikusitakoa; eta ez dugu bakarrik ikusten pertsonaren egoera horretan zerk huts egiten duen, baizik eta lehenik ikusten dugu zer doan ongi, nolakoa den laguntza-sarea, zein diren haren harremanak, ea pozik dagoen bere bizitzako alderdi batzuetan... Izan ere, funtzionatzen ez duena edo ongi ez doana landu ahal izateko, oina jartzen dugun lekuan, sendotasuna dagoen lekuan, bermatu behar gara.

Izan ere, hezkuntzatik bertatik ere dugun joera orokorrak bestela, zer irakasten digu? Akatsa bilatzen, gaizki egiten duguna bilatzen. Adibidez, zenbat kultur kudeatzaile datoz prestakuntza klasikotik edo zenbatek dute musika-hezkuntza, horrek dakarren guztiarekin? Nola mintzatzen gara zailtasun bat dugunean edo *deadline* horretara iristen ez garenean (barkatu spanglish-a), lan egiten dudan ingurunean gatazka bat dagoenean, edo ekitaldi bat antolatzen badut eta behar adina pertsona fisikorik ez badator? Hitz egiteko moduak eragin zuzena izango du nola sentitzen garen, nola hartzen dugun atsedean, nola sartzen garen harremanetan pertsonekin eta nola egiten diogun aurre bizitzako hurrengo erronkari. Eta, jakina, ez gara berritik hasten; hona iristen garenean, denok

daukagu zuhaitz genealogiko bat. Beti diot, Eguberrietako afarietan ikertu ezazue zuen zuhaitz genealogikoa. Amatzik, izebak, arrebak, amak, nola erantzuten dute?

Horixe ekartzen dut etxetik, hezkuntza mailan, baina baita maila fisikoan ere. Pertsona guztiok erronkei aurre egin behar diegunean, bakoitza zama batekin dator, trauma batzuekin, eta, zer gertatzen da kultura sektorean ere? “Beno, hau entretenimendua da...”. Nola ikusten dira gizartean zuen lanak? Zer pentsatzen du bizitza arrunteko jendeak zer egiten duzuen? “Arlo publikoan ari zara lanean, arlo publikoan, kulturean, lanean, hori zortea”, “eta horregatik ordaintzen dizute? Egun oso dantzaldietan eta kontzertuetan baitzabiltza”, “hi, interesgarria benera”. Eta arazoa ez da gizarteak uste duena, baizik eta guk ere sinesten dugu, eta sufritzen duzu eta, gainera, sufritzeagatik errudun sentitzen zara; zer eragin izango du horrek gorputzean, emozioetan, insomnioan, antsietatean? Zeren ez baitago gaizki sentitzeagatik errudun sentitzea baino gauza okerragorik, hor gurpil zoro batean sartzen garelako.

Entzule bat: Hitz egiten entzun dizudanean, nire bizitza profesionalean zehar gertatu zaizkidan egoerak gogoratzen ari naiz. Musika- edo antzerki-talde bat edo dena delakoa kontratatzeke orduan erabaki bat hartzen dugunean, presio gehigarria izaten duzu, antolatu dugun hori jendeari gustatuko zaion edo ez. Herri txikietan lan egiten dugunok jende askorekin gurutzatzen gara karrikan, eta esperientzia positiboak eta negatiboak izan ditut, nahiz eta dena den positiboa, denak aberasten

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

aberasten zaituelako; baina egon da jendea espaloiaz aldatu eta esan duena; “aizu, atzokoa, primerakoa” edo “nondik atera duzu zikinkeria hori”, eta gainera hainbeste ordaindua izango duzue”. Eta badago kudeaketa-prozedura horietan guztietan eskua sartu nahi duen arduradun politiko bat; horrek hasieran ezinegona sortzen dizu, uste duzulako zure eginkizunak kentzen ari zaizkizula, baina beste aldetik nola-halako erosotasunera iristen zara, zeren, antolatutakoa ez bada jendearen gustukoa, errua arduradunarena delako.

Batez ere, kopuru handiko ekitaldia denean, sentsazioa dut egiten ez den arte, eta ikusle gehienen onarpena egiaztatzen ez duzun arte (nahiz eta kontuan izan behar den batzuei, egiten duzuna egiten duzula ere, ez zaiela gustatuko, motibazio politikoengatik edo ez zarelako haien begiko edo dena delakoagatik), urduritasun egoera bat sortzen dela; ez dakit estresa ote den; agian, urteak igaro ahala, estres hori arintzen joaten da, eta esperientziaren arabera, esaten duzu jendeari gehiago edo gutxiago gustatu zaiola. Diru-kopuru handiko ekitaldi garrantzitsu bat kontratatzen duzunean, baduzu tentsio gehigarria, zeren, jendeari gustatzen ez bazaio, erru guztia niretzat izango baita. Eguneroko lanean nola-baiteko tentsioa sortzen duen beste elementu bat da.

Susana Corbacho: Eskerrik asko. Bai interesgarria. Kultura bezain erantzukizun handia duzunean, hala nola berritasuna ekartzea edo sormena, artea, hau da, horrek gizartean mugitzen duen guztia, ba oso erantzuki-

zun handia da. Garrantzitsua da, halaber, geure buruari galdetzea ez soilik jendeak nola hartuko duen, baizik eta era berean nondik egiten naizen. Izan ere, batzuetan erabakiak honela hartzen dira: “beldur naiz ez ote didaten errua botako, lehengo egunean bezala kalean”. Orduan, beldurraren edo kez karen emoziotik hartzen dut erabakia; eta beste une batean, agian, esaten duzu, “zinez sentitzen dut hori dela une honetan ekar dezakedan talderik onena, nahiz eta pixka bat arriskutsua izan”. Orduan, agian, erabakia beste leku batetik hartzen ari zara, balio edo jarrera batetik. Garrantzitsua da bi galdera horiek egitea. Ikustea ea erabakia hartzen dudan kanpoko presio batetik, hau da, jendeak ekitaldia nola hartuko duen kezkatuta eta horrek sentiarazten didanaz kezkatuta, edo, bestela, “ni pozik nago nire lanarekin, badira niretzat garrantzitsuak diren balio batzuk”.

Baina, jakina, erantzuna ikusten duzunean, jendeari gustatu ez zaiolako errua botatzen dizutenean, horretan X dirua gastatu da, eta erdiari gustatu ez zaion zerbait oso esperimentalala egin da, jakina, arriskua da. Epaituak izateko arrisku hori eszenatokira ateratzen diren artistek eta kanpora ateratzen den zerbait programatzen duten pertsonak dute, animalia sozialak garelako. Blokeoak, arbuioak edo kanpo-epaiketak izugarri aktibatzen gaitu maila fisiologikoan. Hor, batez ere, zuretako ibilbide bat egitera gonbidatuko zintuzket: zer unetan arriskatu dudan nire komunitatearentzat eta gizartearentzat ona zela sentitzen nuen zerbait ekarriz, nola sentitu naizen eta zer pertsonak hartu duten modu

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

batera edo bestera, zer oihartzun duen horrek nigan eta zer oihartzun gizartean.

Iñigo Oses (moderatzailea): Pixka bat sakondu nahi dut lehenago aipatu duzun gauza batean, bitxia baitzen. Laneko prekarizazioan beti dago gauza komun bat: zenbat irauten dugun modu naturalean, egiten duguna gustatzen zaigulako. Beste diziplina batzuetara estrapolatzeko modukoa izan daiteke, baina hemen hausnarketa hau egin nahi genuen, hots, agian, ia denok elkartegintzatik gatoz, adar humanistikotik, arteak, eguneroko lana oso handia den esparrutik, gustatu egiten zaigulako, eta gero, pausoa eman eta hori zure lana denean, hori jasaten duzu inguru horretan zoriontsu zaudelako. Edo hogeit hamar edo hogeitahiru urte betetzen dituzten eliteko kirolarien kasuak ikusi ditugu, hau da, egunero sekulako ahalegina egitearen ondoriozko lesio batengatik edo beste zerbaitengatik kulturaren babesa aurkitzen dutenak; hortxe daude taberna batean jotzen eta jendearen aurrean egotea sentitu behar dute, hori behar dutelako kirola egiten zutenena behar zuten bezala. Hau da, gure funtzionamenduaren beraren edo gustatzen zaigunaren kamikaze samarrak gara. Nik asko miresten dut David kontu batengatik: berak gauza batean lan egiten du, baina horraino; badaki bereizten. Asko gustatu zait. Inbidia handia eman dit. Azaldu iezadazu hori, egiten dugunaren funtsezko atala delako, nik uste: egiten duguna eta egin beharko genukeena bereiztea. Hau gauza komuna bezala ikusi dugu.

David Márquez: Iñigok esaten duena da, denboraldi batez, batzuek dakikezuen bezala, arte eszenikoekin izan nuen lotura; beraz, zuzenez lanean lan egin izan dut artistekin, dela ekoizpenean eta zabalkunde- an lagundurik, dela programazioan. Badakizue arte eszenikoen mundua, eta, bereziki, dantzaren mundua, dena entrenatzen duten jendeaz osatua dagoela, eta jende horrek pentsatzen du egin beharrekoa grinaz egin behar dela. Ni mundu horretara lanera iritsi nintzenean, beste leku batetik nentorren, zientzia politikoetatik, kultur kudeaketako master batetik, eta niri kulturaren kudeaketa egitea interesatzen zitzaidan. Dantzan ustekabea bukatu nuen eta, beharrik, zeren, nik musika garaikidea bainuen gustuko, eta han, nireak egingo zuen, zeren mundu horretan arlo hori are txikiagoa baita. Baina erabaki ona hartu nuenez, edota bizitzak dantza garaikiderantz eramanez eta, ez, ordea, musika garaikiderantz. Han ohartu nintzen ustekabea ari nintzela arlo horretan lanean, interesatzen zitzaidala, baina ez nintzela horren zale porrokatua, eta, orduz geroztik, nik neure buruari behin eta berriz esaten nion niri mundu hori gustatzen zitzaidala, interesatzen zitzaidala, baina ez nintzela haren zale amorratua, eta nik hartan lan egiten nuela, behar zen denbora eskaintzen niola, ziur aski zegokidana eta ordaintzen zidatena baino gehiago, baina une jakin batean nik hura eten egiten nuen, eta nire interesak edo grinak (oso zabalak) beste alde batzuetan hasten nintzen hedatzen. Eta hori beti oso argi izan dut nire bizitzan zehar eta, hau prestatzen ari nintzenean aipatzen nuenean, esaten zeni-

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

hori gako zela.

Ez dakit esan behar dizuedan ni ongi sentitzen naizela. Beharbada, hain zuzen ere, horrexegatik. Batek gorabeherak izaten ditu bizitzan zehar, baina uste dut jakitun naizela zer suebaki paratu nuen; eta neure osasun mentala babesteko aukera izan dut kasu horretan, baina batez ere nire ongizate orokorra. Eta ez lotu soilik lanbide arrakastari, zeren, haren eraginpean banago ere, ez bainago soilik haren mendean.

Rosana Corbacho: egin diguzun galderari dagokionez, bizi garen herriko kultur kudeatzaileak izanik, beti ebaluatuta egotea bezalako dela, ezin duzu zure aisialdian deskonektatu, galdetu egingo dizutelako, eta arlo publikoan lan egiteko kargu bat dugunez, iruditzen zait erantzukizuna duzula eta ezin duzula gaintetik kendu. Aisialdian beste herri batera joan behar da, esaten ari dira hemen.

Hemen nago musikaren industrian lan egiten dudalako, orain psikologo ari bainaiz, baina rol asko izan ditut, diskoetxe, jaialdi eta abarretan. Nik lehen oporrak hartzen nituen jaialdietan lan egiteko, eta, aldi berean, ikasten ari nintzen. Duela lau egun, taxi batek harrapatu ninduen Sevilan eta, lurrian nengoela, zerbait hautsia ote nuen jakin gabe, pentsatu nuen lehenengo gauza izan zen “ez dut deus bertan behera uzteko asmorik”. Eta psikologoa naiz. Eta mugak erakusten ditut. Hori lanarekin nahastuta egotearen sentipen motaren erakusgarria da, hau da, ez be-

reiztearen, mugarik ez jartzearen eta beste grinarik ez izatearen erakusgarria. Esaten dugu, “hori egiten dut, gainera gustatzen zait, jendea ikusi dut, sozializatu egin naiz, badaukat nire aisialdi tartea”. Gainera, esaten ari zaretenez, ez dute aparteko gasturik ordaintzen programatu duzuen ekitaldian lan gehiago egiteagatik. Astelehenean lanean aritu behar baduzu, edo asteartean, zure atsedean edo deskonexio egunik izan gabe, idazten dizun mundu guztiaren *feedbacka* ikusiz, noiz hartzen du-te atsedean garunak eta gorputzak, eta emozioek? Noiz egiten dugu geldialdi bat eta egiten dugu lan egiten dugunarekin zerikusirik ez duen zerbait?

Izan ere, berez oso lotura sendoa dago kultura ekartzeko konpromisoarekin, gizartea hobetzearekin eta gainerako guztiarekin diru publikoa delako ardurarekin, nire soldata ordaintzen ari zaizkidala. Baina soldata lanorduengatik ordaintzen da, eta gero atsedean hartu behar da, baina atsedena ez da soilik ordu libreetan hartu behar; izan ere, denbora libre horretan, zer egiten duzue zuen astialdian? Zer aukeratzen duzue? Familiarekin, lagunekin egotea? Ba al duzue lanarekin zerikusirik ez duen aisialdiko jardueraren bat? Izan ere, Paul Gilberten teoria oso interesgarri batean, ditugun hiru sistemei buruz hitz egiten du. Horietako bat alerta-sistema da, eta zerikusia du defendatzearekin, borrokatzearekin, haserretzearekin, ozenago hitz egiten diguna bezala, babesten gaituen sistema bat delako. Gero, zerbaitetan kontzentratutik lan egiteko sistema dago, helburuak betetzen, egiteko gauzen zerrendak osatzen, eta

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

horrek dopaminarekin du zerikusia. Kontzentrazio handia, produktibitate handia... Eta bi horiek batu egiten dira, emankorra naizelako eta email bat sartzen zait letra larriz eta bat-batean alerta-sistema. Naturren, normalean, alerta-sistema sartzen denean, gora eta behera egiten du, eta estresa aska dezakegu, kortisola orekatu. Gaur egun, dugun email kopuruak alerta-sistema eraginen digu.

David Márquez: Baina ez emailak bakarrik.

Rosana Corbacho: Emailak, mugikorra, erlojua... Hori alde batetik. Eta, horrez gain, pentsamendu hutsarekin soilik sistema horien bidez aktibatzen den guztia. Ez da lanean ari naizen denbora, lanean pentsatzen ari naizen denbora baizik: lanetik kanpo, lo egiteko orduan, haurrak dutxatzen ari naizenean...

Eta zein da hirugarren sistema? Atsedena. *Soothing systema* da. Erlaxazio-sistema, konexio-sistema, oxitozinarekin eta garunak duen opiaceo-sistemarekin zerikusia duena. Horrek lagundu egiten digu jaisten, atsedean hartzen, konexioa sentitzen, ongizate sentsazioa sentitzen. Sistema hori txikiena da ditugunen artean. Hor sartuko lirateke egitearen plazer hutsagatik egiten ditugun jarduera guztiak. Nire kontsultako paziente batzuek esan didate: “egun libre bat dut, lortu dut, eta egiteko gauzen

zerrenda bat daukat nire egun librean”. Eta nik: “a, zer sistema aktibatzen duzu hor berrir? Kontzertazio-sistema. Eta esan zidan: “Tira, azkenean tarta bat egin nuen niretzat, nire bikotekideari ez zaiolako gustatzen. Eta zerrendan ez zegoen tarta hori egiteko sentsazio horiek berrikusten joan ginen, eta horixe zen oportetari egin zuen gauza bakarra, ia behartuta.

Eta, amaitzeko, estresak edo burnoutak jota edo erreta egoteagatik, baina klinikoki erreta egoteagatik, jendea kontsultara etortzen denean, ez dira etortzen estres guztiarekin daudenean, oportetara joan ondoren etortzen dira, leku zoragarrietatik itzultzean. Oporrak kontatzen dizkidate, oportetari zeinen ongi egoten direla esaten didate, eta, ondoren, ordenagailuaren aurrean jartzen dira, deskonektatzea ahaztu zaialako, hiru mila email zain dituztela, eta nerbio-sistema etengabe alertan egon den ingurune berera itzultzen dira, eta sintoma berberak itzultzen dira. Talka gogorra dago. Horregatik, garrantzitsua da jakitea burnout puntura iritsi bagara, ez dela oportekin moldatzen, sentitzen dut..

David Márquez: Hori dela eta, aurkezpenean azaltzen saiatu naizen mezuzu batzuk azpimarratuko ditut; izan ere, erraza da pentsatzea sistema aldatuz gero denak hobera egingo duela. Baina sistemak, arestian esan dudana bezala, ez dira aldatzen, eraldatu egiten dira, eta poliki-poliki eraldatzea da asmoa. Sistemak poliki-poliki eraldatzeko modurik onena

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

onena erresilientzia-mekanismoak hobetzea da, edota, behintzat, guri interesatzen zaizkigunak, ingurunean eragitea. Esaten ari zarenaren il-dotik doala uste dut.

Denok dakizue, bizitza profesionalean zehar, seguruenik aldaketa garrantzitsu batzuk egin dituzuela, edo aldaketa esanguratsu batzuk egin dituzuela, eta gehienetan inguruko muturreko edo funtsezko aldaketek eraginda gertatu direla: hiriz aldatu zaretelako, lesionatu egin zaretelako eta lanez aldatu zaretelako, etab. Horixe adierazten dut nik, kultur sektorean gure langileen osasunarekin arazo bat dugula diagnostikatu ondoren. Agian kontua ez da lege guztiak aldatzen hastea, batzuk bai, baina beste aldaketa batzuk eragin behar dira lan-ingurune horretan, eta agian kolektiboki irudikatzea dagokigu, ingurune bakoitza oso berezia baita. Ez da gauza bera Iruñeko kultur erakunde batean lan egiten duen norbaiten ingurunea, ibar bateko herrixka batena, edo Sony mailan kultur industriari lan egiten duen norbaiti buruz ez hitz egiteagatik, edo elkarte batean dagoen eta lagun artean musika egiten duen eta gutxi gorabehera profesionalki horretatik bizi den norbaitena. Aldaketa horiek egin behar badira, eta ingurune batzuetan gertatu behar badira, eta ingurune guztiak desberdinak badira, agian adimen kolektiboa aplikatu dezakegu gure ingurune profesionalean zer aldaketa sor ditzakegun ikusteko, batez ere kontuan hartuta zuen guztien barnean nolabaiteko homogeneotasuna dagoela, tokiko administrazio publikoaren barnean zaudetela, zertarako eta geure errealitaterako egokiak diren aldaketak

sortzeko.

Rosana Corbacho: Erresilientziaren gaia asko interesatzen zait. Davidek esan duen bezala, erresilientzia ez da askotan ulertzen den erresistentzia huts hori, edo are okerragoa, “ikusten dut gertatu zaidanaren alde ona”, hau da, hori azalekoa da, bizirik iraun dut. Hori ez da erresilientzia. Erresilientzia, bai maila indibidualean, bai maila sistemikoan, haus-tura edo gertaera traumatiko batetik abiatuta, ez naiz soilik bizirik atera eta mantendu, zer ikasi dut nigandik, naizen horretaz?, zeintzuk dira nire balioak?, zerk iraun du bizirik nigan?, zertan oinarritu naiz? Askotan, terapian egiten diren lehen analisietan esaten da: zeintzuk dira bizitzan markatu zaituzten elementurik positiboak eta negatiboak? Eta elementu horietan balioak zein diren ere ikus dezakegu. “Maila pertsonalean edo profesionalean, bulegoan, udalean edo gertatu zaidan horretatik...”, edo bakoitzak lan egiten duen tokian; “zer ikasi dut nik hor nigandik?” Batzuetan hauxe izaten da: “gatazka bat egon zen, gaizki pasatu nuen, baja hartu behar izan nuen, eta hor ikasi nuen nire gorputzari entzuten diodanean nire pertsonen arteko harreman fisikoak hobetzen ditudala”, edo “niretzat, benetakotasuna eta zintzotasuna balio lagungarriak zaizkit lan egiteko eta hobeki harremanetan sartzeko”. Balio balioetan gehiago oinarritzen dugunean, produktuan oinarritu beharrean, gugandik ateratzen dena, gizarteari egiten diogun ekarpena, gure lanetik ateratzen dena ere hobea izango da. Eta, nolabait, produktuen eta pertsonaren arteko bereizketa dago, eta erresistentzi on

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

handiagoa ematen digu.

David Márquez: Gogoratzen al duzue noiz hasi ginen denok erresilientziaren kontzeptu horri buruz hitz egiten, eta oso gauza orokorra izan zela? 2008ko krisian zabaldu zen noranahi, eta esaten zen kultura-ren sektorea, krisi ekonomikoa gorabehera eta baliabideak murriztu arren, oso erresilientea izan dela. Berriro berdin hitz egin dugu pande-mian, beste krisi batean. Pandemian zehar hasi ginen esaten kultur sek-torea oso erresilientea izan dela eta nahiko ongi eutsi ziola krisi pande-mikoaren erasoari. Hala ere, arriskua ere ba dago; izan ere, hasieran oso positiboak diren eta 2008an zein 2020an datuak hobetu zituzten erresilientzia-mekanismo horiek berehala eraldatzen dira, produktibita-tera, produktua lortzera, oso bideratuta daudelako, erresistentziak izan-go lirakeen horretan. Hau da, sistemaren ohiko funtzionamenduak babesteko mekanismoak, ekoizteko, baina ez aldatzeko; izan ere, kon-turatzan bazarete, bi krisi horietan erresilientziarekin gertatu den guztiak ez gaitu posizionamendu hobera eraman, kultur sektore gisa, baizik eta ahuldu egin gaitu; zeren, hemen mintzagai duguna, eta gure autopertzepzioarekin edo onarpenarekin zerikusia duten arazo asko zerikusia dute gizarteak ikusten gaituen moduarekin edo kulturak gizar-te osoan duen garrantziarekin edo zereginarekin.

Horregatik diot baietz, erresilientzia-mekanismo batzuk sortu ditugu

une kritikoetan, baina horrek ez gaitu eraman, ez du eraldakuntzarik eragin, beste leku batean jarriko gaituen balio-aldaketa edo sistemaren aldaketa izan beharko luketen horietarantz, guztiz kontrakoa baizik. Erresistentzia-mekanismoak izan dira, kultur sistema askoz ere zurrunga-koa izan dadin, sistemaren beraren produktibitatera bideratuagoa egon dadin. Eta iritzia eman dezakegu hori positiboa edo negatiboa den. Egia esateko, ondorio onuragarriak ditu, hots, herritarrentzako zerbitzuak, saltzen ditugun produktuak eta abar sortzen jarraitzen baitugu. Baina, funtsean, borroka txiki bat galdu dugu, ez dut esaten gerra galdu du-gunik, gure sektorearen garrantziari edo etorkizuneko proiektioari bu-ruz, erresilienteak izateko saialdian balio batzuk galdu ditugun heinean.

Iñigo Oses (moderatzaila): Remedios Zafrak hauxe idatzi zuen: “gorputzak gelditu esaten dizu, senda zaitetz; mundu garaikideak, aldiz, har ezazu botika, ekoiztu esaten dizu”. Jendearengan ikusten dituzuen botiken eraginaz galdetu nahi dizuet. Zure kontsultara joaten den profi-laz hitz egitea gustatuko litzaidake, harritu egingo baikaitu. Eta, gero, nork bere buruari exijitzen dionari erantzuteko onartu ditugun botiken normalizazioaren kontuaz.

Rosana Corbacho: Medikazioa eta automedikazioa, azkenean, gorpu-tzarekiko eta emozioekiko deskonexioari buruzko kontua da. Neke han-

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

dia badut insomnia dudalako eta hiru kafe hartzen baditut, eta gero antsietatea ematen badit, eta gero medikuak agindutakoa hartzen badut, benzodiazepina, mediku askok errezetatzen duten bezala, zertan ari naiz hor? Estaltzen ari naiz. Agian lanera joatea lortuko duzu, oraindik ez duzulako baja eskatu nahi, baina gero gertatzen dena da gorputzak... nik beti esaten dut lehenbizi gorputzak hitz egiten digula eta, entzuten ez badiogu, oihu egiten du, eta entzuten ez badiogu, gelditu egiten da. Dauden ondorio guztiekin; benetan ahalegina egin behar da sistemen zurruntasun horren barruan eta hortxe ari gara erresistentzian.

Eusten ari gara, baina horrek ez du zerikusirik haztearekin. Haztea desberdina da. Haztea malgutasuna da, moldagarritasuna, zabaltea, neure buruari entzutea, besteei entzutea, inguruaren, herriaren, nire sektorearen eta kulturaren beharrei entzutea, baina baita nik ditudan beharrei entzutea ere. Automedikazioaren, ematen diguten medikazioaren eta ahuleziaren bat dagoenean ahul agertzeko dugun beldurraren artean, joera dugu ez nabaritzeko, ez esateko, ez partekatzeko, horretaz ez hitz egiteko, eta hemen ez dut esan nahi gure arazoak mundu guztia-ri kontatu behar dizkiogunik edota udalean osoko bilkura egin behar denik izu-erasoa dudala esateko. Baina, soil-soilik, gure jarrera irekitzen badugu eta ikusten badut lankide bat kezkatuta dagoela, osasun mentaleko arazoen zantzuak daudela, “elkarrizketa deserosorik” ez izateko saiheste horrek isolatu egiten gaitu bai gu, bai beste pertsona. Eskua

luzatu eta esaten dugun bakoitzean, “kafe bat hartuko dugu...?”. Tira, antsietateak jota badago, ez gonbidatu kafe batera, hobe ezki-ur bat. Baina, “ikusi zaitut, lehengoan ez zinen etorri, ongi zaude? Paseatu nahi duzu? Kanpoan bazkalduko dugu, ordenagailuaren aurrean bazkaldu beharrean?” Lotura horri esker edo eskua luzatzeari esker, oxitozina jariatuko dugu, hau da, soothing systema, giro ona, konexioa, estresetik babesten laguntzen diguna. Ez da soilik lan-karga jaistea eta sistema aldatzea, sistemak aldaketa behar baitu, baina lehenik eta behin beste pertsona batzuei eskua luzatzen aritzea eta besteei gertatzen zaiena modu aktiboan entzutea ona da bizi zaren girorako.

Talde politiko desberdinak daudenean eta bat-batean aldatzen direnean, urte asko daramatzaten tirabirak ere egon daitezke; eta gertatzen zaidana erakutsi nahi ez izatea, edo errudun sentitzen naiz estresatuta egoteagatik kulturakoa naizenean, beste arlo batekoa izan beharrean. Bizitza erdia ematen dugu aurpegi perfektua, zurruna, erakusten saiatzen.

Askotan, kalean norbait aurkitzen duzunean eta esaten duenean dena ongi doakiola, familia perfektua duela eta txakur arras ongi hezia duela, auto bat erosi berri duela, pandemiak izugarri ongi egin diola.... Eta gero, beste bat aurkitzen duzu, nahikoa gaizki pasatu duena, kezkatuta dagoena, terapia hasi duena, hori zuri kontatzeko beldurra duena, baina kontatu beharko dizuna.... Norekin geratzen zara kafea hartzera?

Kulturgintzako osasun egoeraren berrikuspen kritikoa

egiazki konexioak. Beti geure burua errespetaturik. Partekatzen dut se-guru sentitzen naizen arte, ez dago zertan over expose yourself... Beste spanglishbat, ken iezadazue mikroa.

David Márquez: Aurkeztu dizuedan eskemara itzuli nahi nuke, Rosanak garatu dituen kontzeptuak kontzeptu sistemikoan ikus ditzazuela nahi nuelako.



Arazoez hitz egin behar dugula esaten duenean, kontu pertsonalak esparru publikoan agerian uztea, betiere segurtasun-ingurune batean, hori guztia eman ditudan kontzeptu horietan ikus dezazuela nahi nuen. Egia esan, sistemen teoria da, ez gara asmatutako gauzei buruz ari, baizik eta denbora asko daramate kontrastatuta. Horrek gogoeta eginarazten dit, ikusten ari baitzarete, prestatu gabe ere, eremu pertsonala eremu orokorragora eramaten ari garela. Ikuspegi sistemiko horri buruz hitz egiten hasi gara, funtsean giza gorputza berez sistema bat delako, natu-

